

400 pezeta.
15 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

20

1997ko uztaila

DOBHrako
eskaintza
gaia

Arantxa Ugartetxea
elkarrizketa

Bertsolaritza
Gehigarria

Suedia
Nazioarte

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45

Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:

Jose Mari Auzmendi

Erredakzio batzordea:

Ainhoa Azpiroz, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Maite Saenz, Fito Rodriguez,
Kristina Mardaraz,
Xabier Sarasua, Itziar Goñi,
Joxi Oiarbide,
Ane Miren Miralles,
Arantxa Urbe eta Juanjo Otaño.

Aholkulariak:

J. A. Zubeldia,
Manuel Arregi,
Mariam Bilbatua,
Xabier Isasi, Irene Lopez,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Begoña Bilbao,
Lore Erriondo,
Jaione Apalategi eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:

Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:

ANtza S.A.L.

Azaleko argazkia:

Ikor Kotx

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.997/VI/30

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala
6 kronika

8 gaia

BADATOR EAE-RA DOBH-REN EZARPENA

19 elkarrizketa

Paulo Freireri buruz

Arantxa Ugartetxea

23 gehigarria

Eskolako bertsogintza erreformaren ildotik.
Fito Rodriguez eta Juan Mari Juaristi.

35 berriak

38 ekarpena
Ikasbatuaz

40 nazioartea
Suedia

hik hasi ez ditu bere gain hartzen
laguntzaileek plazaratutako iritziak
ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENAKARITZA

Kanpin Aharmentzatutako Irabazkaria Negutia

PRESIDENCIA

Secretaría General de Acción Exterior

Argitarapen berrak estetikoki laguntzaile:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

gipuzkoar diziplina kutxarekin
gizarte-ekintza


LEGAZPI

Burdinaren Harana

Zatoz eta bizi ezazu



Mirandaolako burdinola
hileko lehenengo
igandetan
zabalik



e d i t o

r i a l a

Hatzak adina, hogei. Euskal zenbakuntza sistemak hogei lehen zenbakiak ditu oinarri. Arbaso zaharren antzera guk ere hilabetez-hilabete gure hatzetako bat izendatu dugu zenbakiko.

Eta kurtso bukaera zerbait bada, balorazio garaia da. Jada amaitua den ikasturtea zerbaitek bereizi badu, erakunde eta estamentu desberdinetatik euskararen eta Euskal Hezkuntzaren aurka jaurtitakakoak izan dira eta denen artean, Miguel Sanz Nafar Gobernuak lehendakaria txapeldun.

Edozein pentsakera politikoren gainetik, ezin uka liteke gure herriaren iragana, Euskal Herriaren historia. Beste edozein herritako iraganari zor zaion ezagupen eta errespetu ber-bera zor zaio gureari.

Multimedia eta telematikaren aroan, dena artxibatua, aztertua, egiaztatua... dagoen garaian nola liteke bere esku horrelako ardura duen pertsona batek hau guztia ezkutatu eta itsu-gor egin nahi izatea... edo benetan ez du ezagutzen herri honen nondik-norakoa, eta nondik azpimarratzen dugu, horrek bere buruaz esan nahiko lukeen guztiarekin...

Gure gurpilak bigarren bira burutu du. Azken bira honetan jende askorekin topo egin dugu eta asko izan dira inguratu zaizkigunak. Zenbat ilusio. Gure orrialdeetan irudikatu ezin izan dugun zirrara nabaritu dugu Euskal Herriko txoko guztietan, jendearen lan egiteko gogoak eta oztopo guztien gainetik aurrera egiteko kemenak eta nahiak hunkitu gaitu sarritan.

Duela bi urte, HIK HASIren sorrera bultzatu gintuzten oinarriko ezaugarriak present izan ditugu denbora guzti honetan: euskalduntasuna, nazionaltasuna, Euskal Herri osorako izatea, baterakoa, irakasle euskaldunen topagune, irekia eta plurala, independentea eta gaur, inoiz baino gehiago irmoki hedatu nahi ditugu. Eta gure arbasoek egin zuten antzera lehen hogeitaz zenbakiak konbinatuz sortuko ditugu datozen berriak.

Ez dezala inork inoiz aitzakiarik izan gure hizkuntza, kultura eta historiaren arnegatu genuenik esateko. Animo guztioi eta dagoeneko Atturritik Ebroraino eta Orduñatik Santa Grazira sortu den olatu geldiezinaren hondoko-itsasoan zuzen jarrai dezagun guztia blai egiteko.

Izan ongi!

*Euskal
Hezkuntzan
aritzea
geroz eta
garestiago*



Jarrera desegoki en aurrean kexu ugari irakaskuntzan

k r o n



Hartzaindegiak kexu

Gipuzkoako Foru Aldundiak hartzaindegientzako dirulaguntzetan iragarri dituen murrizketak Gipuzkoako Haur-Eskolen Koordinakundearen haserrea piztu du. Neurri honi erantzunez ondoren bertan beherra utzi zuten protesta eguna deitu zuten ekainaren 17rako.

Besteak beste, Koordinakundeak Administrazioaren jarrera salatu du, Hezkuntza Sailari arazoaren aurrean gero eta gogor eta itsuago jokatzen ari dela leporatu dio, kordinakundeak eskaintzen

dituen irtenbideei "muzin egiten diolarik". Haur-Eskolen Koordinakundeak gainera, Hezkuntza Sailak agertzen duen "borondate politiko" falta salatu du.

Hezkuntza Saila bi urteko haurrentzako gelak irekitzen uzten ari da eta koordinakundearen iritzian hori legearen aurka doa, honek ziklo osoak ireki behar direla aipatzen baitu, 0-3 urte bitartekoak alegia. Gela horiek irekitzeak kalte ekonomiko handia suposatzen die Haur-Eskolei.

Foru Aldundiko Gizartekintza Sailarekin adostasun batera iritsi dira eta eskari plataforma bat osatu dute Hezkuntza Sailarekin adosteko. Bertan, Hezkuntza Sailak beregan hartzen duen neurrian Aldundiak bere laguntza murriztea jasotzen da. Aurten 120 milioi, heldu denean 80 eta hurrengo urtean 40 milioi izango lirateke, falta dena Hezkuntza Sailak osatuko lukeelarik.

Gipuzkoan 30 hartzaindegi publiko eta pribatu daude publiko joerarekin eta hauetara 0-3 urte bitarteko 2.000 haur joaten dira.

Eskola ereduak ezagutarazten

Seaskak Ikastolen Besta antolatu zuen Donibane Lohitzunen joan den ekainaren 28an. Gisa honetako egunaz baliatu nahi izan du ikastolak aurkezteko. Antolatzaileek mezu bat helarazi zuten: ikastola eskola publiko bat dela, deneri irekia eta euskalduna.

Ikas Bik ere, plazaratu berria duen gida baten bidez elebitasunaren nondik-norakoak azaldu nahi izan ditu. Gida honetan, eskola ereduaren oinarriak, eta antolakuntza, irakaskuntza elebidunaren historia eta guraso eta irakasleengan elebitasunak dituen ondorioak jasotzen dira. Ikas Bik gida hauek banatu ditu iparraldeko eskola, herriko etxe eta leku publikoetan.

“Ez dago demokrazia sendorik askatasun pertsonala lortzeko borondaterik ez bada eta hura tradizio kulturalaren defentsan oinarritzen ez bada”
(Alain TOURAINE. Soziologoa)

h i k a



SORTZENen erantzuna

Euskarazko irakaskuntzaren aldeko manifestaldira deitu zuen SORTZENek ekainaren 14ean Iruñean. Ekitaldi honekin Javier Markotegik azken asteotan euskarazko irakaskuntza publikoaren aurka egindako eraso bortitzak salatu nahi zituen. Aldez aurreko matrikula Dereduan egin duten haur askok beste eredu batzuetan ikasi beharko dutela, Donapea LHko euskarazko lerroaren itxiera eta DBHri buruzko foru dekretua salatu zituzten.

Deialdiarekin bat egin zuten CCOO, EILAS, ELA eta LAB sindikatuek eta EA, EAJ eta HB alderdiek. Honetaz gain, sindikatuek bere aldetik protesta egin zuten Hezkuntza Sailaren aurrean, Herrikoia guraso federakundearekin batera.



Nafarroako ikastolak tinko

Hamaika egonezin eta haserre altxatu ditu Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) eta Javier Markotegi Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak burututako bilerak.

Kontseilariak adierazitakoaren arabera, ikastetxe txikiek desgertu egin behar dute Nafarroan. Gauzak honela, ondorioz, Altsasu, Baztan, Bera, Cortes, Etxarri, Irunberri, Lesaka, Lodosa, Sartaguda, Tafalla, Tutereta eta Vianako ikastolak desgertzeraz bultzatu-


ko lituzkete. Erabiliko lukeen prozedura NIEren esanetan "hitzarmen-ekonomikoak ez ematea da, eta hori gurasoek ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea zapaltzea litzateke".

Ez litzateke hau Nafar Gobernuak diru-laguntzei dagokien arloan legea betetzen ez duen kasu bakarra. Aurrekontuen arabera, Administrazioak ikastetxe kontzertatuek LOGSEk eskatutako betebeharretara egokitzeko egindako inbertsioen %50 ordaindu behar du, baimendu dituen kasuetan. NIEk Administrazioarekin hitzartutako inbertsioa 2.000 milioi pezetakoa (80 milioi libera) izan da 1995 urtetik eta gaur arte milioi bat pezeta (40.000 libera) besterik ez ditu jaso.

Nafarroako Gobernuaren eragozpenak direla medio NIEko 17 ikastoletatik 6k arazoak dituzte Mapa Eskolarrarekin. Gainera, beste irakaskuntza sareetan gertatzen den legez, ikastolek ez dute sustengu irakasleen laguntzaz gozatzen.

GAIA

Badator EA Era D



Kurtso hau amaitu dugu, eta irailarekin batera etorriko da hurrengoa, 1997-98 ikasturtea. Baina ez da urtea soilik izango EAEn aldatuko dena, hezkuntza sistema bera ere bai. Derrigorrezkoaren Ondorengo Bigarren Hezkuntza (DOBH) ezarriko da EAEn. Ondorioz, LH1, IEE1 eta BBBko 1. mailak desagertu egingo dira. Antolaketa desberdina izango da, bai irakasgaien aldetik eta baita ikastetxeen antolaketari dagokionez.

EAEko Hezkuntza Sailak egindako planifikazioa garatua eta zehaztua dago. Hezkuntza arduradunak ikastetxeetako zuzendariekin elkartu dira eta egindako bileren ondoren, ikastetxe bakoitzaren antolaketa eta eskaintza zehaztuta gelditu dira.

DBH 16 urterarte ezartzekoa den honetan, BBBko 1. eta 2. mailak desagertu egiten dira, eta baita LH1 eta IEE1 ere. DBHko 2. zikloa arduratuko da 14 eta 16 urte bitarteko derrigorrezko hezkuntza eskaintzeaz. Ondoren, ikasten jarraitu nahi duten ikasleek DOBHrekin egingo dute topo, Batxilergoarekin eta Heziketa Zikloekin.

Batxilergoa bi urteko kurtsoz osatua egongo da, eta Heziketa Zikloak, berriz, erdi eta goi mailako ikasketez, biak ere bi urteko iraupenekoak. Ika-

OBHren ezarpena

keta hauen edukiei dagokienez, aldatketak nabarmenak dira, antolaketa ezberdina, eta aukera anitza.

Batxilergoaren lau zutabeak

Batxilergoaren barnean lau adar desberdin izango dira: Natur eta Osasun Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak, Teknologikoa eta Artistikoa. Orain arte Batxilergoa eskaintzen zuten ikastetxe guztiek BBBko 3 mailak eta UBI eskaintzen zituzten, baina sistema berriarekin lau aukeretatik guztiak ez dituzte eskainiko. Gehienek bi adar emango dituzte, eta batez ere Natur eta Osasun Zientziak eta Giza eta Gizarte Zientziak. Hauek dira errazentopatu ahal izango diren adarrak.

Aitzitik, eredu Artistikoa aukeratu nahi duenak urte batzuk itxaron behar du, oraingoz ez baitu inongo ikastetxe eskainiko.

LOGSEren arabera finkatuko dira maila hauetako ikasgaien edukian, baina EAEn euskal dimentsio batekin. Hezkuntza Sailak dekretu curricular batzuk egin ditu euskal kulturaren berezko elementuak bultzatzeko. Horien araberako aldaketek ikasgai guztiei eragingo die, baina bereziki Geografia, Historia, Antropologia, Hizkuntza eta Literaturari.

Aldaketa hauekin batera ordutegi aldaketak ere aurrikusi dira. Hezkuntza Sailaren asmoa Bigarren Hezkuntzan egun lektiboak aldatzea zen.

Urteko 175 lan egun ezartzea erabaki zen, astean ordubete gutxiago eginez. Ertainetan dauden irakasleek, ordea, orain 160 egunetan egiten dute lan, eta aldaketa berri hau ez dute begi onez ikusi. Egundakoa errespetatzea eskatu diote Hezkuntza Sailari, eta baita zentro bakoitzak bere ordutegia erabakitzeko autonomia gehitzea ere. Eskakizun hauekin beste bi ere egin dituzte: ikasle kopurua gutxitzea eta Batxilergoko ikasleen orduen gehikuntzari irtenbide arrazionala ematea.

Arazo guztiok konpontzeko bilerak egiten aritu dira irakasle eta zuzendariak Hezkuntza Saileko arduradunekin.

IKASTOLAK

	ZIENTZIAK	GIZARTEA	TEKNOLOGIKOA
Larramendi Ikastola (Andoain)	X	X	
Usabalgo Laskorain Ikastola (Tolosa)	X	X	X
Axular Lizeoa (Donostia)	X	X	
Sto. Tomas Lizeoa (Donostia)	X	X	X
Astileku Ikastola (Portugalete)	X	X	X
Pasai Lizeoa (Pasaia)	X	X	
Ander Deuna Ikastola (Sopela)	X	X	
Kirikiño Ikastola (Bilbo)	X	X	
Urretxindorra Ikastola (Bilbo)	X	X	
Larramendi Ikastola (Mungia)	X	X	
Laudio Ikastola (Laudio)	X	X	
Almen Ikastola (Eskoriatza)	X	X	X
San Viator Ikastola (Arrasate)	X	X	X
Lourdeseko Ama-Garaialde (Urretxu)	X	X	X
Haztegi Ikastola (Legazpi)	X	X	X]
Ikasberri Ikastola (Azpeitia)	X	X]]
San Bartolome Ikastola (Elgoibar)	X	X]]
Orereta Ikastola (Errenteria)	X	X	X]
Haurtzaro Ikastola (Oiartzun)	X	X	X]
San Benito Ikastola (Lazkao)	X	X]]
Jakintza Ikastola (Ordizia)	X	X]]
Txantxiku Ikastola (Oñati)	X		
Aranzadi Ikastola (Bergara)	X		
Assa Ikastola (Lapuebla de la Barca)	X		
Barandiaran Lizeoa (Donostia)	X	X	X

PRIBATUA

	ZIENTZIAK	GIZARTEA	TEKNOLOGIKOA
San Vicente Paul (Barakaldo)	X	X	X
San Paulino de Nola (Barakaldo)	X	X	X
La Inmaculada (Barakaldo)	X	X	
La Inmaculada (Bilbo)	X	X	
S. Pedro Apóstol (Bilbo)	X	X	
Berriotxo (Bilbo)	X	X	X
El Salvador (Bilbo)	X	X	X
Esclavas del Sgrdo. Corazón (Bilbo)	X	X	X
Salesianos (Bilbo)			X
La Salle (Bilbo)	X	X	
Madre deDios (Bilbo)	X	X	
Jesus María (Bilbo)	X	X	
Pureza de María (Bilbo)	X	X	X
Ntra. Sra del Carmen (Bilbo)	X	X	
Ntra. Sra. de Begoña (Bilbo)	X	X	X
Calasancio (Bilbo)	X	X	X
Ntra. Sra. de la Antigua (Orduña)	X	X	
Jose Done Ikastetxea (Bermeo)	X	X	
San Jose Ikastetxea (Durango)	X	X	
San Jose Maristas (Durango)			X
El Carmelo (Zornotza)	X	X	
Ntra. Sra. de la Merced (Derio)	X	X	
Urdaneta (Loiu)	X	X	X
BV Irlandesas (Leioa)	X	X	
Askartza Klaret (Leioa)	X	X	X
Centro Xabier (Portugalete)		X	X
Santa María (Portugalete)	X	X	X
Ntra. Sra. del Carmen (Portugalete)	X	X	X
San Jose (Santurtzi)	X	X	
La Anunciata (Donostia)	X	X	
La Asunción (Donostia)	X	X	
Niño Jesus de Praga-El Carmelo (Donostia)	X	X	
Católico Sta. María (Donostia)	X	X	
Coñpañía de María (Donostia)	X	X	
La Salle (Donostia)	X	X	
Manuel de Larramendi (Donostia)	X	X	
Mary Ward (Donostia)	X	X	
Sagrado Corazón (Donostia)	X	X	
San Iganacio de Loyola (Donostia)	X	X	
Santa Teresa (Donostia)	X	X	
La Salle Berrozpe (Andoain)		X	X
Iraurgi (Azpeitia)	X	X	
La Salle Azitain (Eibar)	X	X	
Sta. María de la Providencia (Eibar)	X	X	
Ama Guadalupekoa (Hondarribia)	X	X	
Irungo la Salle (Irun)	X	X	X
Eskolapioen Ikastetxea (Tolosa)	X	X	
San Jose Obrero (Urnieta)		X	X
Antoniano (Zarautz)	X	X	X
Corazonistas (Gasteiz)	X	X	
Marianistas (Gasteiz)	X	X	
San Viator (Gasteiz)	X	X	
Ursulinas (Gasteiz)	X	X	
Sagrado Corazón (Gasteiz)	X	X	
Presentación (Gasteiz)	X	X	
Jesus Obrero (Gasteiz)	X	X	X

PUBLIKOA

	ZIENTZIAK	GIZARTEA	TEKNOLOGIKOA
Ikasbidea Ikastola (Gasteiz)	X	X	
BHI Ramiro de Maeztu (Gasteiz)	X	X	
BHI Koldo Mitxelena (Gasteiz)	X	X	
CFPS Mendizabala (Gasteiz)	X		X
BHI Federico Baraibar (Gasteiz)	X	X	
BHI Francisco de Vitoria (Gasteiz)	X	X	X
BHI Los Herrán (Gasteiz)	X	X	
BHI Aniturri (Agurain)		X	X
Fusión Laguardia (Biasteri)	X	X	
Fusión Llodio (Laudio)	X	X	
BHI Miguel de Unamuno (Gasteiz)	X	X	
BHI Zaraobe (Amurrio)	X	X	X
IB Dolores Ibarruri (Abanto)	X	X	
IB Urritxe/IFP Zornotza (Zornotza)	X	X	X
IFP Barrutialde (Arratzu)	X		X
IB Balmaseda (Balmaseda)	X	X	X
IB Antonio Trueba (Barakaldo)	X	X	
IB Beurko (Barakaldo)	X	X	
IB Cruces (Barakaldo)	X	X	
IFP Minas (Barakaldo)	X		X
IPFP Nicolás Larburu (Barakaldo)	X	X	X
IB Urbi (Basauri)	X	X	
IB Uribarri (Basauri)	X	X	
IFP Bidebieta (Basauri)	X	X	X
IB Ignacio Arocena/IFP Barrueta (Basauri)	X	X	X
IB Botica Vieja (Bilbo)	X	X	
IB Gabriel Aresti (Bilbo)	X	X	
IB Ibarrekolanda (Bilbo)	X	X	
IB Ignacio Ellacuria (Bilbo)	X	X	
IB Martin de Bertendona (Bilbo)	X	X	
IB Miguel de Unamuno (Bilbo)	X	X	
IB Rekaldeberri (Bilbo)	X	X	
IB San Adrián (Bilbo)	X	X	
IB Txurdinaga Behekoa (Bilbo)	X	X	
IPFP Elorrieta/IFP Errekamari (Bilbo)	X	X	X
IFP Artabe/Txurdinaga 2 (Bilbo)		X	X
IFP Escurce (Bilbo)		X	X
IFP Emilio Campuzano (Bilbo)	X		X
IB Derio (Derio)	X	X	
IB Fray Juan de Zumarraga (Durango)	X	X	
IB Ategorri/IFP Tartanga (Erandio)	X	X	X
IB Elexalde (Galdakao)	X	X	
IFP Andra Mari (Galdakao)		X	X
IB Gernika (Gernika)	X	X	
IB Getxo 3/IFP Aixerrota (Getxo)	X	X	
IB Julio Caro Baroja (Getxo)	X	X	
IFP Fadura (Getxo)	X		X
IB Arratia (Igorre)	X	X	
IFP Iurreta (Iurreta)	X	X	X
IB J.M. Barandiaran (Leioa)	X	X	
IB Romo/IB Aiboa/Getxo (Leioa)	X	X	
IFP Iturrioz/IB Ondarroa (Lekeitio/Ondarroa)	X	X	X
IB E.Urkiaga Lauaxeta/IFP Santamaria (Mungia)	X	X	X
IFP Ntra. Sra. Begoña/IB SS del Valle (Ort-Trap)	X	X	X

PUBLIKOA

	ZIENTZIAK	GIZARTEA	TEKNOLOGIKOA
IB Uribe Costa/SFP Jesus Oiarbide (PLentzia)	X	X	
IB Ballonti (Portugalete)	X	X	
IB J.A. Zunzunegi (Portugalete)	X	X	
IFP Repelaga (Portugalete)		X	X
IB Axular (Santurtzi)	X	X	
IB Kantauri (Santurtzi)	X	X	
IFP Santurtzi (Santurtzi)	X		
IB Angela Figuera (Sestao)	X	X	
IFP S. de la Peña (Sestao)	X	X	X
LeizaranBI (Andoain)	X	X	
BI/LH (Arrasate-Aretxabaleta)	X	X	X
BI K. Etxegarai/Urola LH (Azpeitia-Azkoitia)	X	X	X
Txindoki I. (Beasain)	X	X	
BI Ipintza (Bergara)	X	X	X
LH Alza (Donostia)	X	X	
BI Bidebieta (Donostia)	X	X	
Easo IP (Donostia)	X		X
Ibai Lizeoa (Donostia)	X	X	
Peñaflorida BI/Usandizaga (Donostia)	X	X	
Xabier Zubiri BI/Manteo LH (Donostia)	X	X	
Martutene LH (Donostia)			X
Armeria Eskola (Eibar)	X		X
CIEM (Eibar)	X	X	X
I. Zuloaga (Eibar)	X	X	
Arreiturre BI (Elgoibar)	X	X	X
A. Iturriaga BI/ I Labaka (Hernani)	X	X	X
Batxilergo I (Hondarribia)	X	X	
Batxilergo Lanbide HI (Irun)	X	X	
Pio Baroja/Bidasoa LHI (Irun)	X	X	X
BI/LHI (Lasarte-Oria/Usurbil)	X	X	X
Olazabal BI (Legazpi)	X		X
Lanbide HI (Mutriku)			X
Zuazola R:M. BI/Larraña LH (Larraña-Oñati)	X	X	
Oianguren LH (Ordizia)	X	X	
Don Bosco LH (Errenteria)	X		X
Koldo Mitxelena BI (Errenteria)	X	X	
Lanbide HI (Errenteria)			X
Orixe BI/Tolosaldea LH (Tolosa)	X		X
J.M. Iparragirre BI (Urretxu)	X	X	
Lizardi BI (Zarautz)	X		
Zumaia LH (Zumaia)		X	X

Taula hauetan EAEko ikastetxeek Batxilergo mailan zein adar eskaintzen duten ikus daiteke. Topatzeko errazena eta ugariena den arloa Natur eta Osasun Zientziak da. Giza eta Gizarte Zientziak ere ikastetxe askotan ikasi ahal izango dira. Teknologikoa, berriz, urriagoa da, eta batez ere orain arte Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen zituzten zentron esku geratu da arlo hau. Adar artistikoari dagokionez, bestalde, datorren ikasturtean ez da aukera hori izango. Oraingoz proiektua besterik ez da, eta 1999/2000 ikasturterako ezartzea aurrikusten da.

Eredui dagokienez, ez da gauza garbirik ikusten. Eskariaren arabera ezarriko direla esaten da, baina gero ikusi beharko da taldeak osatzen diren, zenbateko ratioa eskatzen den...

Bestetik, irakasleriaren prestakuntza. D erudian ikasten duten ikasleak gero eta gehiago dira, eta hauek DOBHko ikasketak eredu horretan egingo dituzte. Horregatik da hain garrantzitsua irakasleen prestaketa. Administrazioak erronka handia du arlo honetan, eta ongi aztertu beharreko eta gauzatu beharreko lana da, guztion onerako izan dadin.

Heziketa zikloen aniztasuna

Arlo profesionalean Heziketa Zikloak dira berrikuntzaren oinarri. Erreformak erdi eta goi mailako ikasketak sortu ditu eta Heziketa Zikloak izena eman die. Erdi mailako Heziketa Zikloetara igarotzeko DBH gainditu beharra dago. Eta goi mailako ikasketak egin ahal izateko Batxilergoa gaindituta edukitzea eskatuko da eta maila ertaineko zikloak aukeratzen dituztenek ezingo dute berauetara igaro. 20 familia desberdin sortu dira: Administrazioa, Elikagaien industria, Merkataritza, Elektrizitatea, Gizarte Zerbitzuak, Egurra, Fabrikazio Mekanikoa, Produzio Zerbitzuak, Osasuna, Informatika, Kimika, Gorputz Ekintza, Ibilgailuen Mantenua, Nekazal Ekintza, Ostalaritza, Eraikuntza, Jantzigintza, Irudi Pertsonala, Komunikazioa eta Arte Grafikoak. Hauetako bakoitzean titulazio desberdinak daude, espezializazio maila desberdinak eta oraingo 120 izendatu eta zehaztu dira. Bi urteko ikasketak dira, laburrak, eta oso espezifikoak. Ikasleek karpeta indibidual bat eskuratuko

dute ikasketa hauekin, eta kompetentzia edo prestakuntza maila adieraziko da bertan.


Aniztasun honen helburua lan munduari egokitzea da. Hau da, unean uneko merkatu laboralak eskatzen duen ikasketa ezarriko da. Lan horretarako behar den jendea ateratzen denean, titulazio hori kendu eta eskariaren arabera beste bat ezarriko da. Eskaria-eskaintza lotura estua mantentzea ahalbidetuko du malgutasun honek. Hezkuntza Saileko arduradunen arabera hobekuntza nabarmenak ekarriko ditu langile zein enpresentzat. Ezarri diren eta ezarriko jdiren titulazioak sindikatu eta enpresen eskakizunen arabera garatu dira. Bi helburu garbirekin egin da hau: gaur egun dauden lanpostuetarako prestatzeko eta orain irudikaezinak diren lanpostuetara moldatzeko gaitasuna izan dezaten.

Sistema berri honekin batera jarraipen eta kontrola aurrera eramango dira curriculum berriek benetako eragina izan dezaten. Horretarako espezialisten taldeak sortu dira. Hauen zeregina

enpresa pribatuen eskariak biltzea izango da, alde batetik. Eta bestetik, ikasleak ebaluatzeko sistema berriak diseinatuko dituzte. EAEko Eskola Kontseiluko komisio iraunkorrek testu liburu eta eskola argitalpenak kontrolatzea ere beharrezko ikusten du. Baimendu aurretik eta finkatutako helburuak betetzeko kontrol hau egin beharrekoa dela uste du, bai ikuspuntu pedagogikotik bai zientifikotik begiratuta. Era berean gaur egungo materiala baloratzeko eta euskal gizartera egokitutako material berriak sortzera bultzatzen du.

Dena dela, aurrikuspen hauekin lotuta ez doana ereduaren garapena da. Titulazioen aniztasuna kontuan hartuta, euskara eskaintzen direnak oso urriak dira, eta gainera eskari kopuruak balditzaturik daude. Ez dago berma segururik, arazoak kolokan jarraitzen du.

Oraingoan, datorren ikasturterako Heziketa Zikloak finkatu dira ikastetxeetan eta horietan dira ondorengo tauletan ikus daitezkeenak.



MAILA ERTAINA

	Almen Ikastola (Eskoriatza) San Viator (Arrasate) MEP (Arrasate)	Jesus Obrero IP (Gasteiz) Dioesanas (Gasteiz) La Salle-Berrozpe (Andoain) Maria Inmaculada (Donostia) San Miguel-Elizaran (Donostia)	Irungo La Salle (Irun) San José Obrero (Urnietia) Escuela Profesional Obrera (Zarautz) Ntra. Sra. de Begonia (Barakaldo) Dolores Sopena (Bilbo)	Angeles Custodios (Bilbo) Maria Inmaculada (Bilbo) Sta. M ^a de Artagan (Bilbo) Salesianos (Bilbo) Escuela Química Electrónica (Bilbo)	San José Maristas (Durango) San Viator (Sopuerta) San Miguel (Zalla) Esperanza Alhama (Loiu) Centro Xabier (Portugalete)	Hijas de la Cruz (Santurtzi) Goierri (Ordizia) Lea-Artibai (Markina) Txorierri (Derio) Urola Garaiko (Zumarraga) Llodio LH (Laudio)
-Mekanizatua -Mantenu elektromekanikoa -Ekipo eta instalazio elektronikoak -Merkataritza -Soldadura eta galdaragintza		X X X X X X	X X X			X X X X
-Mantenu elektromekanikorako instalazioa, makineria eta lerroen eramatea -Instalazio hotz, klimatizatu eta bero produkzioaren muntaia eta mantenua -Ekipo eta Instalazio elektroteknikoak -Laborategia -Jestio administratiboa	X	X X X	X X			X X
-Erizantzako zainketa laguntzailea -Sukaldaritza -Ileapantzaile -Estetika pertsonal apaingarria -Administrazioa	X	X X X X X X	X	X X	X X X X X X	
-Merkataritza eta marketina -Ostalaritza eta turismoa -Irudi pertsonala -Osasuna -Kimika			X	X X X X X X X	X X X X X X	X X X X X
-Ekoizpen mekanikoa -Elektrizitatea/Elektronika -Ibilgailu autopropultsatuen mantenua -Metala -Egurra eta altzariak				X X X X	X X X X X X	X X X X X X
-Erdi mailako erizain teknikaria -Basoko lanak eta ingurugiroaren kontserbazioa -Arte grafikoen aurreinpresioa -Iturgintza obrak -Hormigoi obrak	X					
-Eraikuntza -Kontsumorako ekipo elektronikoak -Jantzigintza -Karrozeria -Jatetxe eta tabernetako zerbitzuak						
-Ibilgailuen elektromekanika -Aroztegi eta altzairuen ekoizpen industrialak -Garapen operazioak kimika mailan -Kontsumorako ekipo elektronikoak -Proiektu mekanikoen garapena						
-Kimikako prozesuak -Ekipo eta instalazio elektromekanikoa						X

Zaraobe BHI (Amurrio) Murgia BHI (Murgia) Ciudad Jardín BHI (Gasteiz) Gamarra BHI (Gasteiz) Mendizabala BHI (Gasteiz)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	
IT Construcción (Zigoitia) Abanto-Zierbena LHI (Abanto) Minas LHI (Barakaldo) Nicolas Larburu LHI (Barakaldo) Bidebieta LHI (Basauri)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X
Escure LHI (Bilbo) Elorrieta LHI (Bilbo) Emilio Campuzano LHI (Bilbo) Tartanga LHI (Erandio) Andra Mari LHI (Galdakao)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X
Hosteleria LHI (Galdakao) Iurreta LHI (Iurreta) Repelaga LHI (Portugalete) San Jorge (Santurtzi) Arras-Aretxa BI/LHI (Arrasate)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X
Azpei-Azkoi BI/LHI (Azkoitia) Bergara BI/LHI (Bergara) Alza LHI (Donostia) Martutene LHI (Donostia) Easo LHI (Donostia)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X
Zubiri-Manteo IB/LHI (Donostia) CIEEMM (Eibar) Escuela de Armeria LHI (Eibar) Elgoibar BI/LHI (Elgoibar) A. Iturr-K. Labaka BI/LHI (Hernani)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X
Baroja-Bidasoa BI/LHI (Irun) Irun-Payaundi LHI (Irun) Oñati BI/LHI (Oñati) Don Bosco LHI (Errenteria) Zamalbide LHI (Errenteria)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X
Escuela del Papel LHI (Tolosa) Tolosa BI/LHI (Tolosa) Lasarte-Usurbil BI/LHI (Usurbil)	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X	X X

GOI MAILA

	Almen Ikastola (Eskoriatza) San Viator (Arrasate) MEP (Arrasate)	Jesús Obrero IP (Gasteiz) Diocesan (Gasteiz) La Salle-Berrozpe (Andoain) María Inmaculada (Donostia) San Miguel-Elizaran (Donostia)	Irungo La Salle (Irun) San José Obrero (Urnietá) Escuela Profesional Obrera (Zarautz) Ntra. Sra. de Begoña (Barakaldo) Dolores Sopeña (Bilbo)	Angeles Custodios (Bilbo) María Inmaculada (Bilbo) Sta. M ^a de Artagan (Bilbo) Salesianos (Bilbo) Escuela Química Electrónica (Bilbo)	San José Maristas (Durango) San Viator (Sopuerta) San Miguel (Zalla) Esperanza Alhama (Loiu) Centro Xabier (Portugalete)	Hijas de la Cruz (Santurtzi) Goierri (Ordizia) Lea-Artibai (Markina) Txorierri (Derio) Urola Garaiko (Zumarraga) Llodio LH (Laudio)
-Sistema informatikoen administrazioa		X	X			
-Eregulazio sistema eta kontrol automatikoa		X	X			
-Eraikuntza metalikoak						X
-Proiektu mekanikoen garapena		X X	X			X
-Mekanizatuaren bidezko produkzioa		X X X	X		X	X
-Erabilera informatikoen garapena		X	X			
-Nazioarteko merkataritza						X
-Ekipo industrialaren mantenua		X				X
-Plastikoa eta kautxoa						X X
-Elikadura industria						X
-Administrazioa eta finantzak		X X		X X		X
-Produktu elektronikoen garapena		X X X			X	
-Diseinu eta produkzio editoriala			X			X
-Idazkaritza		X X				
-Diagnostiko klinikoaren laborategia		X				X
-Analisia eta kontrol kimikoa	X	X				
-Ingurugiro kimika		X				
-Informatika eta telekomunikazio sistemak						X
-Animazio sozio-kulturala		X				
-Zerbitzu sozio-kulturalak				X	X	
-Administrarritza					X X	X X
-Informatika				X	X	X
-Osasuna				X	X	
-Merkataritza eta marketina				X		
-Ekoizpen mekanikoa						
-Elektrizitatea eta elektronika					X X X	
-Kimika					X	
-Ibilgailu autopropulsatuen mantenua						X
-Oihalgintza						X
-Egurra eta altzariak						X
-Automobilgintza		X				
-Ekintza fisiko eta kiroletako animatzailea	X					
-Ingurugiro osasuna	X					
-Ingurugiro kimikari teknikaria	X		X			
-Ikus-entzutekoak eta espektakuluak						
-Instalazio fluidoaren eta termikoen proiektuak eta mantenuak						
-Eraikinen instalazioen mantenua, muntaia, eta prozesua						
-Obra planak eta gauzatzeak						
-Garraio jestioa						
-Pasta eta paperaren prozesu industrialak						
-Zerbitzu instalazioen mantenua		X				
-Instalazio elektroteknikoak						

Zaraobe BHI (Amurrio) Aniturri BHI (Agurain) Ciudad Jardín BHI (Gasteiz) Mendizabala BHI (Gasteiz) Zornotza LHI (Zornotza)	X X X X X		X X X	X X X X	X X X				X
Minas LHI (Barakaldo) Nicolas Larburu LHI (Barakaldo) Bidebieta LHI (Basauri) Barrueta 'ar Benito LHI (Bermeo) Artabe LHI (Bilbo)		X X		X X X X	X				
Erreka Mari (Bilbo) Escale LHI (Bilbo) Txurdinaga 2 LHI (Bilbo) Elorrieta LHI (Bilbo) Aixerrota LHI (Getxo)	X	X	X X X X X	X X X X X	X				X
Iurreta LHI (Iurreta) Ntra. Sra. de Begoña (Ortuella) Repelaga LHI (Portugalete) Saturnino de la Peña LHI (Sestao) Azpej-Azkoj BI/LHI (Azkoitia)	X			X X X				X X	
Txindoki BI (Beasain) Bergara BI/LHI (Bergara) Bidebieta BI (Donostia) Alza LHI (Donostia) Martutene LHI (Donostia)	X X		X	X		X		X	
Easo LHI (Donostia) Zubiri-Manteo IB/LHI (Donostia) CIEEMM (Eibar) Escuela de Armeria LHI (Eibar) Elgoibar BI/LHI (Elgoibar)	X X	X	X	X X X	X				
Makina herramienta int. (Elgoibar) Baroja-Bidasoa BI/LHI (Irun) Irun-Payaundi LHI (Irun) Olazabal BI (Legazpi) Mutriku LHI (Mutriku)	X X	X X X		X X X X					X
Don Bosco LHI (Erreñeria) Escuela del Papel LHI (Toiosa) Toiosa BI/LHI (Toiosa) Lasarte-Usurbil BI/LHI (Usurbil) Zumaia LHI (Zumaia)	X		X	X X X X				X X	

el karrizketa

ARANTXA UGARTETXEA

“

Paulo FREIREren ikuspegi pedagogikoa ez dago idatzia, egoera konkretu bati erantzuteko sortutakoa da

”



Arantxa UGARTETXEA

ARANTXA UGARTETXEA



“*Lo inédito viable: elkarrizketa egoeran, besteari hitz egiten diozunean eta ENTZUTEN diozunean, egoera berri bat sor daiteke, inork inoiz somatu ez duen egoera berri bat*”

Orain dela gutxi hil zen Sao Paulon Paulo Freire pedagogo. Hezkuntzan, eta batez ere helduen alfabetatze munduan aritu zen lanean. Arantxa Ugartetxea donostiarrak bera ezagutzeko aukera izan zuen eta bere ikastaroetan parte hartzekoa ere bai. Freireren metodologiak erabat ukitu zuen emakume hau, eta bere esperientzia eta bizipenak azaltzeko prest agertu zaigu.

Sao Paulon ezagutu zenuen Paulo Freire, baina bera pertsonalki ezagutu aurretik ere bere metodologiaren berri jaso zenuen. Nola sortu zen lehen kontaktu hori? Nondik jaso zenuen bere berri?

60ko hamarkadan Kolonbiara joan nintzen. Garai hartan ez zegoen ONGrik, baina lagun bat eta biok hara joan ginen konpromezu batekin: iparraldeko herri txiki batean ikastetxe kooperatibo bat eraikitzea. Bi urte pasa nituen han eta orduan izan nuen Paulo Freireren berri. Alboko herriko irakasle oso lagun bat etorri zen Freireren alfabetatze metodologiaren zabalpena ematera. Ikastaro baten bidez, bere metodoaren erabilpenaz jabetu eta erabiltzen hasi ginen.

Hainbeste ukitu al zintuen bere metodoak?

Bai, ezagutu eta berehala “hau da herri honek behar duena!” pentsatu nuen. Hango jendeak ez zuen Europa edo Estatu Batuetako metodo sofistikatorik behar, bertako jendeak egindakoa baizik. Eta ez dakizu zer inpresio, zer erantzun izan zuen jendearen aldetik! Ba al dakizu zer zen nekazari haien zat irakurtzen eta idazten ikastea? Bizitza osoan besteak baino gutxia-

go direla entzun dute eta bapatean 45 egunetan irakurtzen eta idazten hasten ziren. Besteak bezalakoak zirela eta besteen mailara iritsi zitezkeela konturatu ziren. Pertsona bezala beraiek ere jakintsuak direla sentitzen dute. Barruko iraultza bat suposatu zuen horrek.

Zeintzuk dira metodologia iraultzaile honen osagarri nagusiak?

Nik lau azpimarratuko nituzke: kontzientziazioa, historian kokatzea, gogoeta eta elkarrizketa. Hortik abiatuta ateratzen da dena. Garrantzitsuen ekintza da eta ondoren dator teoria. Nik zera ikasi nuen: ekintzak beti gogoeta batetara eramane behar gaituela eta gogoeta horrek kontzientziaziora. Hortik teoria bat atera behar da eta berau berriro gure egunerokotasunera itzultzen denean ekintzen bidez berriro aztertzen, osatzen eta lekuetara, momentuetara, historiara egokitzen joango gara. Hori da bizitzeko pedagogia era, pedagogia bizia.

Oinarrizko elementu hauek sakonago ezagutzeak pena merezi du Freireren metodologiaren ondo jabetzeko. Lehenengo, kontzientziazioa aipatu duzu. Zer da kontzeptu horrekin Freirek ulertzen zuena?

Beno, kontzeptu hori izan zen 70eko hamarkandan mugiarazi gintuena. Ez da berdina kontzientzia edukitzea eta kontzientziazioa. Kontzientzia denok daukagu. Baina kontzientziazioa da ni zurekin hitz egiten ari naizela eta aldi berean zergatik ari naizen, nora iritsi nahi dudana eta zer esan nahi dudana hausnartzen ari naizela. Askoz ere sakonagoa da, hausnarketa bat dago hor barruan. Kontzientziazioak gogoeta suposatzen du, baina ez esaten dudanaren arabera soilik, baizik eta entzuten didanak zer pentsatuko ote duen, zenbat gauzekin ukitzen zaren, zerk sentsibilizatzen zaituen, zein giroetatik zatozen... Horiek denak gogoeta batetara eramaten gaituzte eta

kokatu. Eta ondo kokatzeko gogoeta behar da.

Orduan, Freireren iritzi, ez dago hezkuntza mailan gogoeta eta kontzientziaziorik gabeko ekin-tzarik.

Hala da. Gogoeta horrek eramaten gaitu teorizatzerara, eta teoria horrek praktikan bukatu behar du.

Kontzientziazioa eta gogoeta-ekin batera historiako kokape-na aipatu duzu lehen. Errealitate-arekiko lotura estua mantendu behar dela, alegia.

Bai, hala da. Ezin dugu historiatic kanpo ibili. Gogoeta horretan, gure praktika aztertzeko garaian, zein une historikotan gauden hartu behar dugu kontuan. Garaiko historiari buruz gure errealitatean dauden galderak zeintzu diren jakin behar dugu ondoren gure praktikan galdera horiei erantzuten ahalegintzeko. Adibidez, ni irakaslea baldin banaiz, bizi dudana une historiko honetan sentsibilizatuta egon behar dut, sentitu egin behar dut egungo eskariak zeintzuk diren sozialki, historikoki, neure herrian kokatuta. Irakasle ona baldin banaiz, ikasleek bizitzen dituzten galdera pila horiek ezagutu beharko nituzteke, bion artean, ikasle eta irakaslearen artean erantzuteko.

Historiaren eta norberaren jatorriaren arabera kokatze honetan bakoitza kontestu ezberdinetik datorrela kontuan hartuta, hezkuntza ez da neutrala, ezta?

Ez, ez da, eta hori Freireren ideia garrantzitsu bat da. Ez du esaten politika gela barrura eraman behar denik, politika hor dago. Denok daukagu ikuspegi bat, denok gaude zerbaiten alde gehiago eta zerbaiten kontra gehiago. Inor ez da neutrala. Hezkuntza hor kokatzen da eta ez da hezkuntza neutralik existitzen. Horregatik daude ikastetxe bereziak, institutu desberdinak, unibertsitate desberdinak...

Aniztasun honen ondorioz eza-gutza era desberdinetara geureganatzen dugu.

Bai, irakaslearen lana ez da bere aldeko jarrerak sortaraztea ikasleengan. Irakasleak egoera agertu behar du, estalkiak kendu, gero bakoitzak esperimenta dezan nondik nora joan. Bide desberdinak daude bakoitzak bere eza-gutza garatzeko eta bide horietan elkar-riketa agertzen zaigu berriro. Eta hementxe dago Freireren gauzarik politena: lo inédito viable.

Zer ulertu behar dugu “lo inédito viable” horrekin?

Elkarrizketa egoeran, besteari hitz egiten duzunean eta ENTZUTEN diozunean, egoera berri bat sor daiteke, inork inoiz somatu ez duen egoera berri bat. Argitaratu gabeko egoera da, baina bideragarritasun bat baduena.

Freirek garrantzi handia ematen zion elkarrizketari. Guri, ordea, oraindik ere kosta egiten zaigu.

Gu oso ohituta gaude ez entzuten. Irakasleok mahai borobil batean bildu eta elkarri entzuteko pazientziarik ez daukagu. Eta askoz gutxiago ikasleentzat. Ez daukagu pazientziarik eta hori beharrezko da.

Zenbat aldiz esaten zuen Paulok geletara erantzun pila batekin sartzen ginela. Baina norenak izan dira galde-

“Garrantzitsuena ekin-tza da eta ondoren dator teoria”



rak? Ikasleek askotan ez dute galdera bakar bat ere egin!

Ikasle eta irakasleen arteko asimetria izugarri horri Paulok nola egiten zion aurre?

Beti borobilean esertzen ginen berarekin, ez zegoen oholtzarik. Gai bat hartu eta talde txikitik eztabaidatzen genuen lehenengo. Ondoren, denok borobilean jarri eta ikuspuntu desberdinak agertzen genituen. A zer nolako pazientzia zeukana! Guk askotan aldamenekoa izugarritzko roiloa botatzen ari dela pentsatzen dugu. Eta Paulo, berriz, hantxe egoten zen eserita, lasai, entzuten. Zeren pertsonarentzat hitz egiten ari den momentu hori oso garrantzitsua da, hortik abiatuko da bere sormena, bere ikusmira, bere eza-gutzaren bereganatzea.

Elkarrenganako errespetua izatea esan nahi du honek guztiak.

Bai, batzuk azkarragoak eta beste batzuk geldoagoak gara. Ezagutzaren geureganatze horretan errespetu handia eduki behar da eta benetako errespetua hori da. Hor izugarri ikasten da. Freirek ez du inoiz pentsatzen ikasle baten galdera alferrikako denik. Guk hori teoria mailan ikusten dugu, baina praktikan autoritarioak gara.

ARANTXA UGARTETXEA



**“Paulo
Freireren
metodoaren
oinarriak
kontzientzia-
zioa, historian
kokatzea,
gogoeta eta
elkarrizketa
dira ”**

Ez dugu autoritarioak izan behar, baina autoritatea eduki behar da. Zein desberdintasun dago bien artean?

Autoritatea eduki behar da irakaslea ezagutza mailan ikaslea baino gehiago delako. Horregatik doa ikaslea irakaslearengana. Hori da irakaslearen autoritatea, bere profesionaltasunean kokatzen dena. Bizitzak eta bere aukerek ezagutzaz jabetzeko aukera eman die, eta ikasleak ez du horrelakorik eduki oraindik. Denak dabilta bidean, baina irakasleak badirudi bide gehiago egin duela. Horregatik, hor dago bere autoritatea, baina hor bakarrik. Ez ezagutzaren manipulazioan, ez ezagutzak nola izan behar duen esateko, ez zein momentutan eta nola eman behar den esateko, ez besteari hitza ukatzeko. Inola ere ez. Hori manipulazioa da, autoritarismoa, botorea erabiltzea.

Freireren metodologiaren oinarriko elementuak aipatu dizkiguzu eta orain hobeto ezagutzen ditugu, Arantxa. Gure eguneroko lanean, gure gelan, ideia hauek martxan jartzeko zeintzu dira eman behar ditugun lehen pausoak?

Freireri jarraituz, lehenengo ikasle-riak bizi duen egoera ezagutu behar dugu. Hemen hizkuntzalariak, soziologoak, psikologoak nahi badu eta irakasleak parte hartzen dute. Guztien artean gogoeta sakon bat egiten dute profesionaltasunez. Herrian biziz eta ikaslearen hizkera erabiliz ikertzen dute ingurua. Hortik aurrera sortzen dira kontzientziarioa, historiako kokapena, gogoeta eta elkarrizketa. Eta guztien artean pedagogia bizia sortzen da.

Zer esan nahi duzu Freireren pedagogia bizia dela esatean?

Berak teoria eta praktika, hitz idatziak eta biziak, bata bestearekin batera erabiltzen zituen. Pedagogia emozionalari ematen dio garrantzia, eta hori da une hauetan behar duguna. Gaur egun teknologia asko aurreratu da eta pauso handiak eman dira, ez diot ezer kentzen. Baina ez dezagun

ahaztu alde emozionala. Teknika horri pedagogia bizia, emozionala eta nortasunez jantzitakoa eman behar diogu.

Bera helduen alfabetatzearen metodoarekin egin zen ospetsu. Bere metodoa ez dago idatzia, bere ikuspegi pedagogikoaren ondorio konkretu bat da, bere herrian, Brasilen, jende horri erantzuna emateko. Metodo honen atzean dago orain arte esandako guztia.

Brasilen nolako harrera izan zuen Freireren pedagogia honek?

Hasieran, metodoa sortu zuenean, gobernu militarra zegoen agintean. Ezjakinek 45 egunetan irakurtzen eta idazten ikasten zutela ikusi zutenean, eta gainera kontzientziatuta, beldurtu egin ziren agintariok. Neurriak hartzen hasi eta Freire 70 egunetarako espetxean sartu zuten. Gero, 1964ean erbesteratu egin zuten. Lehenengo Bolivian egon zen, gero Txilen, EEBB-tan eta Suitzan. Brasilen demorazia kristaua ezarri zenean bere metodoa nekazaritzan zabaltzen hasi zen. Bere ospea zabaltzen hasi zen eta Ipar Ameriketara eta mundu osoan berataz hitz egiten hasi ziren.

Dena dela, guztiek ez zuten ondo ikusten. Horregatik, Brasilen bertan ere leku batzuetan asko zabaldu zen, baina beste toki batzuetan ez.

Eta hemen nolako oihartzuna izan du?

Nik neuk Axular ikastolan ibili nintzenean sentitu nuen gehien bere pedagogia horren bizipena. Eskolaurrean egon nintzen, eta leku goxoa, atsegina zen. EHU-n ere egon nintzen urtebeteko ordezkapena egiten, eta tradizionala topatu nuen. Azken zazpi urteotan, berriz, Herrerako Txingurri euskaltegian ibili naiz. Neure ikasleekin espazio goxoa sortzea lortu dut; ikasleak ezkortasunetik atera eta kontzientziarioa dela medio. Euskararen kontrako jarrera hori aldatzea lortu dut, ikasleak motibatzea.

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

20



ESKOLAKO
BERTSOGINTZA
ERREFORMAREN
ILDOTIK

Bertsolaritza eta eskola, EAEko Hezkuntza Erreformaren erronka



Fito RODRIGUEZ
EHUko irakaslea

Bertsogintza ikastea “bertsoak egiteko teknikaz” jabetzea baino haratago doan eragiketa intelektuala da. Bertsolaritzaren irakaskuntzaz hitz egiten dugunean hori ezin dugu begi-bistatik galdu. Izan ere, bertsogintza teknikak, teknika den neurrian, ezaguerazko bideak ireki eta markatu egiten ditu. Teknika hauek ezaguera antolatzekeo tresna bereziak dira, alegia. Berebiziko garrantzia du, bada, bertsolaritzaren bidez ezagueraren sistema hori bideratu eta lantzeko egon daitezkeen aukerak aztertzeak, bada.

Oraingo honetan, egungo curriculumaren baitan bertsogintza sustatzeko dauden aukerak aztertzen ahaleginduko gara. Oinarrizko curriculum-diseinuan eta EAEko Erreformak ekartzen dituen aldagai eta baliabide berrien arabera, bertsolaritza irakatsiz zein modutan jorra dezakegun kognizioa, eta halaber, hau egiteak zer nolako etekinak eskaintzen dituen, alegia. Aztergai duguna ez da nolana hikoia, izan ere euskalduntasunari erro errotik lotzen baita. Bertsos beste hizkuntza batera nekez itzultzerik dagoen neurrian, bertsosaren bidez euskalduntasunaren muinera hel gaitezke.

Bertsosak dira nonbait, euskalduntasunaren “zazpiak bat”, euskal kabalaren gakoia, eta horrexegatik (Txillardegik bere *Haizeaz beste aldetik*-en egin zuenaren antzera) zazpi puntutan banatuko dugu esateko daukaguna.

Orain Hik Hasik argitaratzen duen honen iturburua 1996ko udaberrian, Bizkaiko Bertsolari Elkartearen eskariz, Fito Rodriguezek Bilbon egindako hitzaldian dago. Mugimendu pedagogiko berria eta bertsolaritzaren arteko uztarduraren adierazgarri dugu.

Bertsolaritzaz hitz bi

Argi dezagun alde aurretik Zazpiak bat honetan lehen lehenik bertsolaritzan gertatzen ari den aldaketa eta esperientzia zenbait azalpena eman nahi diogula (jada aipatuak Bertsolaritza eta eskola liburuan. Fito Rodriguez., UEU, 1991). Eta azalpena eman beharrean gara gure kulturaren orain dela gutxi arte bertsolaritza eta bertsolariak esentzialismoaren arabera neurtuak izan baitira. Bertsolaritzaren dohaina jaiotzekeo omen zen eta ez

beste inolako, ez zegoen ikasterik, antza denez.

Azken hogeitun urteotan, ordea, eztabaida hau gainditzea lortu dugu eta aire berriak ditugu bertsolaritzan. Arestian aipatu ditugun kezkek gainditzeko, ordea, hamaika eztabaida eta gatazka bizi behar izan zen bertsolaritzan. Aurreko hamarkada berorien lekuko zuzena izan zen. Ikastolak eta orohar irakaskuntzan zebilen jendea izan zen kate horiek apurtzen hasi zena. Lehen urratsa Santutxuko ikastolak egin zuen, eskolaz kanpoko jarduerara gisa sortu zelarik bertsolaritza. Hurrengo urratsa eskolaren eguneroko jardueran txertatzea izan zen eta horretan Amasorrain, Almen eta beste zenbait ikastola izan zen aintzindari. 1984. urtean Santutxuko ikastolak ordurarte epaimahaiek erabilitako irizpide eta bitartekoak kritikatu eta berritzea lortu zuen. Eta hiru urte beranduago bertsolaritzaren inguruko mugimendu pedagogikoaren ekarpena bildu eta ikertuz Fito Rodriguezek tesia egin zuen (1987) (*Bertsolaritza eta eskola* liburuan laburbildua. Fito Rodriguez. UEU, 1991)

Oraingo ahalegina ez doa esentzialismoari erantzun nahiaren bidetik, inondik inora. Erreforma eta egungo planteamendu psikopedagogikoetan funtsezkoa den elementu batez arduratuko gara; ekoizpenaz. Ekoizpena eta eskola orduz kanpoko jarduerari dagozkion ezaugarriez, hain zuzen.

1.- Hasiera batean bertsolaritza dibertimenduari begira eskola orduz kanpo egindako jardueraren. Jardueraren aktibotasunak, ordea, eskolatzeko prozedurara eramatera behartu zuen. Izan ere, bertsolaritzak bere baitan bil-

tzen zituen erreformak bilatzen zituen jarduera aktibo (edo kritiko) horiek.

2.- Zer ikusten zen bertsolaritzaren eskolatzeko-prozedura hartan? Lehenengo eta behin, bertsolaritzaren bidez kultur altxor bat berreskuratzen zela, alegia, beti kultura akademikitik kanpo egondako bide praktikoa bat eta, halere, egunerokotasunean ikaragarriko garrantzia eta legitimitatea eta presentzia ere bazituen.

Jakin badakigu eskolaren ikuspegitik mende honen hasieran ikaragarriko garrantzia eman zitzaiela alfabetatze prozedurei. Alfabetatze bideak ziren garrantzitsuenak eta horren kariaz alfabetatzearekin batera literaturaren erabilera, testu liburuak eta gainerakoak sartu ziren eskolan. Izan ere, eskola alfabetatze-bidea besterik ez zen. Alfabetatzea (adiera honen arabera): irakurmena, idazmena zein matematika kontuetan gaitzea. Teherango Biltzarraz geroztik (1956), ordea, alfabetatzeak beste adiera bat du ("nork bere munduari dagozkion egin beharreko guztiak egiteko nor bere hizkuntzarekin egiteko trebatzea") eta halaxe onartu zuen Unesco berak 1978an. Gaur egun alfabetatzeak nor bere kulturaren txertatu eta bertan jarduteko trebatzea esan nahi du eta gurera etorriz, euskal kulturaren hazia eta hezitzea.

Gure kulturaren baitan, Eusko Ikaskuntzaren 1918ko biltzarra (Bergaran) beharrezkoa izan zen bertsolaritzaren defentsa ikusi ahal izateko. On Manuel Lekuona, Lekuona zaharra, izan genuen orduan borroka honetan aitzindari. Kontuan izan behar dugu garai hartan bertsolaritza eta ahozko edozein produkzio begitan hartuta zegoela. Ez zen ahozko produkzioaren kultur izaera bera ere onartzen, eta On Manuel Lekuonak erakutsi zigun euskal kulturaren funtsezko alderdi bat zela, gure ezaugarri eta berezitasun garrantzitsuenetakoa bat. Eta Manuel Lekuona bera izan zen bertsolaritza "ahozko literatura" izenpean sartu zuena. Honela zioen, hain zuzen ere: "Hau ez da literatura, alfabetatzea eta kultura

akademikoa baino gutxiago, alderantziz, hau berezko ekoizpena da, berezko produktua eta beraz, ahozko literatura da, beste literatura bezain inportantea".

Dena den, Havelock-ek bere lan eza-guna (Havelock (1978) *The Greek Concept of Justice*. Harvard University Press) kaleratu zuenetik ez dirudi egokia denik ahozko jardunari "ahozko literatura" deitzea. Guk egun ez genuke esango "literatura" denik, adiera zehatzago batean "ahozkaritza" dela esango genuke, frantsesez "Oralture" deitzen denaren euskarazko ordaina. Izan ere, ahozkotasan guztiak ez baitira berdinak. Arabieraz idatzitako literatura sakon aztertua duen Paul Zumthorrek ahozkotasan maila desberdinak bereizten ditu: ahozkotasan primarioa, nahasia, sekundarioa eta arartekotua (mass-medietakoa). Eta horren haritik ulertu behar dugu gure kasuan ere beharrezkoa dela kontzeptu zehatza erabiltzea: ahozkaritza.

Zer lortzen da, baina, bertsolaritza eskolatzearekin batera? Lehenengo eta behin, eskolaz kanpoko jarduera guztiak berezkoa duten dibertigarritasun eta aktibotasuna txertatzea lortzen dela esan dezagun. Honekin errepikapen bidezko ezagutzaren transmisioarekin apurtzeko bidea jarri da. Kritika hau barneratzearekin batera "barneratu" zela bertsolaritza irakaskuntzan, alegia. Urrats honen eragina, ordea, hasiera batean pentsa daitekeena baino askoz sakonagoa izango da. Bertsolaritzarekin batera nolabaiteko kultur mota bat eskolatzen da, aurretik erabat baztertuta zegoena eta orduan indarrean zegoen alfabetatzearen ikuspegitik kanpo zegoena. Horretan datza bertsolaritza eskolatzearen alderirik garrantzitsuenak.

3.- Hizkuntza bizia eskolatu zen, bizitza. Gauza bat da euskararen batasun literarioa, horren gora-beherak eta horrekin batera esan dezakeguna; eta beste bat, hizkuntza bizia. Sebero Altubek berak, *Erderismos* liburua eta kidekoak planteatu zituenean, Manuel Lekuonak Bergarako Eusko Ikaskun-



"Ez da literatura, alfabetatzea eta kultura akademikoa baino gutxiago. Ahozko literatura da, beste literatura bezain garrantzitsua"

tzaren biltzarrekoa planteatu zuen. Garai beretsuan Altubek, *Euskara Bizia* idatzi zuen, hain zuzen ere. Hizkuntza bizi hori dugu eskuragai bertsolaritzaren bidez. Pentsa ezazue hizkera akademikoa ez dela normalean kalean erabiltzen dena, ez euskaraz soilik, beste horrenbeste ingelesez, frantsesez, eta abar... Alegia, Londrese-ra baldin bagoaz laster ikusiko dugula ingeles estandarra (hezkuntza, komunikabideetako...) gauza bat dela, eta beste bat bertako auzo eta giza taldeetan erabiltzen den ingelesera, dialekto eta soziolektoak. Eta are nabarmenago ikusiko dugu diferentzia hori Estatu Batuetako hiri nagusienetako ghettoetara jotzen baldin badugu (Los Angeles, New York...). Horra hor Black Vernacular English eta Spanglish famatuak. Frantsesez gauza bera dugu: oso diferentea da Paris iparraldeko "banlieu" deitutakoetan erabiltzen duten hizkera eta auzo haietan bertan eskoletan erabiltzen duten hizkera.

Beraz, bertsolaritzaren bidez eskolak hizkuntza biziaren ateak zabaltzen dituela ikusten dugu eta hori oso garrantzitsua da. Hori eginaz bide hagitz aberatsa zabaltzen dugu. Michael Stubbsen *Lengua y educación* (Cincel argitaletxea) liburuan ederki asko erakusten digu eskolan ahozko jardunak duen garrantzia (hizkuntz ekoizpenaren %80a) eta hizkera akademikoa (irakasleena) eta ikasleenaren artean dagoen aldea.

Bertsolaritzarekin datorren euskara, euskara bizia den heinean, estandarra ez izan arren, eraginkorragoa eta adierazgarriagoa da. Dena den, hirugarren puntu honek zehaztaperen bat behar du:

Euskararen batasuna

Euskararen batasuna bideraturik badugu ere, oraindik orain herren gauden ahozko euskararen batasuna egiteke baitugu. Bertsolaritzaren bidez, hizkuntza bizia indarrean jarritz, izugarritzko altxorra dugu esku artean eta hori erabili beharrean gara. Gogora ekarri nahiko genuke, kontu ezaguna den arren, suomieran, Finlandiako hiz-

kuntza nazionalean (berriki egin hau ere, gurearen antzera) bertako ahozko-tasuna funtsezkoa izan dela, *Kalevala* izeneko poema nazionala iturritzat hartuz, besteak beste. Ahozko tradizioaren altxorarekin eraiki dute batasunaren bidea. Gurean, ordea, hizkuntza literarioa izan da. Beraz, oraindik egiteke daukagun ahozko hizkuntzaren batasun-bidean, eskolatze-bidean, bertsolaritza, ahozko-tasuna, funtsezko ekarpena egiteko moduan da.

Zein kultura mota dugu bertsolaritzarena?

Beraz, pauso honekin jarduera aktibo eta atsegin bati sarbidea ematez gain, akademikoa ez den kultura mota bati sarbidea eman zaio. Era berean, eguneroko bizitzan gure elebitasun arazoarekin harreman estuan dagoen euskara biziari ere sarbidea ematen diogu. Eta honek berarekin protagonista berri ugari dakar batasunaren plazara: besteak beste, fonetika egiteko bide zehatza, estandarren ibilbideetik at dagoen/dauden hizkera/k eta horrekin bidenabar estandarrena ez den hizkuntz pragmatika. Horretaz geroxeago hitz egingo dugu.

4.- Hau guztia nola jorratzen da ahozko-tasuna lantzen dugunean?

"Bertsolaritzaren eskola-prozeduraren bidez kultur altxor bat berreskuratzen da"

Ahozko-tasunaren tratamenduan, erreforma dela eta, ekarpen berri ugari egin da. Guk bi ekarri dizkizuegu, bi liburu hauek: Mari Jose del Riok Horrosori argitaletxean argitaratutako *Psicodegagogía de la lengua oral* eta M. Victoria Reyزابalek egindako *La comunicación oral y su didáctica* (La Muralla argitaletxea).

Iturriak, bazter ezinezko erreferentziak

Lehenak ikuspegi kognitiboa jorratzen du batik bat. Egilea Bartzelonan "Garapen psikologia" irakasle da eta ondorioz bere azalpena, funtsean, ildo horretatik doa, garapen psikologiaren aldetik, hain zuzen. Bigarrena baino teorikoagoa da, nahiz eta laburragoa izan. Reyزابalen liburua, aldiz, ikuspegi praktikotik egin da, eta lagungarri gertatuko zaizkizuen atalak topatuko dituzue. Esaterako, ahozko-tasuna eta ahozko-tasunaren bilakaera neurtzeko fitxak nola egin; hizkeran eta hizkeraren aldaketetan aldagaiak nola sortzen diren ikusi; aldagai horiek nola isolatu eta aldagai horien bilakae-ran gero nola neurtu; zer nolako aldaketak dauden antzeman... Fitxak egin eta ebaluaziorako bigarren hau praktikoagoa da. Dena den, bigarren hau ikuspegi guztiz zentralistaz egin da. Madrilen egin da, Complutenseko irakasleak dira egileak. Haien zat spanish besterik ez dago. Zeharo espainolak dira. Mari Jose del Rioren liburuan, Bartzelonan egin denez, elebitasunaren arazoa aipatzen da behintzat, eta hortik begiratzu gure egoeratik hurbilago egon daiteke. Bigarrenean erreforman ahozko-tasuna era praktikoa batean nola landu azaltzen zaigu (ELE 14n liburu hauei buruzko aipamenak topatuko dituzue). Hauekin batera aurkituko duzue Mikel Mendizabal eta Antton Kazabonek argitaratutako *Ahozko-tasuna lantzen*, Ikastolen Elkartearen eginikoa. Generalitat Valenciana-ren bidez ere argitaratutako *En favor de l'alfabetización* liburua mamitsua dugu.

EAEko Hezkuntza Errefo-

mak zer duen berri

Orain arte haurren eginbeharra "isilik egon eta entzutea" zen. Orain, aldiz, erreforma dela eta, haurrei zera esaten zaie: "Hitz egin behar duzue". Horrek, ordea zenbait galdera erantzutea eskatzen du: nola hitz egin?, zer nolako parametrotan?, zertarako hitz egin?, nola ebaluatu hitz egiten dena?, zer nolako garapena dago horretan?. Hori ere jakin beharra dago. Ezin dira, besterik gabe, ekoiztera bultzatu ikasleak. Hori beste agindu bat litzateke, inora eramaten ez gaituen agindua. Horretarako behar den egoera-mota sortu; nora garamatzen jakin; eta egiten hasitakoa nola ebaluatu alde zurretik argitu beharrekoak dira, alegia.

Beraz, ahozkoitasuna erreforman bete-betean sartzen da. Momentu honetan lehen ez zegoena aurki dezakegu. Eta jakina, irakaskuntzari buruzko planteamendu berri honetan, Manuel Lekuonak zioen bezala, ahozko literatura den bertsolaritzak badu zer eginik, badu zer emanik.

5.- Irakaskuntzaren erreforman "testua" etengabe azpimarratzen den hitza da. Horrek, ordea, ez du esan nahi testugintzari buruz ari denik. Testu hitzari semiotikak ematen dion adieran ari da. Alegia, testua ez dela idatzia dagoena. Testua norberak ehuntzen duena dela. "Textil" etik dator. Testua norberaren ekoizpena da. Beraz, testua ahozkoa izan daiteke. Eta bertsolaritza horixe da, testugintza, norberaren ekoizpena. Hori da egungo erreforman bete-betean aurkitzen duguna, ahozkoitasunean eta aipatutako gainerako gauzeekin batera ere aurkitzerik dagoena. Orain artean dinamika ikasitakoaren erreproduziora bideraturik zegoen. Hemendik aurrera, berriz, norberak ekoiztearen bidea hartu da eta bertsolaritza horretarako paregabeko tresna dugu. Norberaren tankera, norberaren estiloa lantzea, alegia. Eta hori da, erreforman aurkitzerik dagoen hastapen nagusienetakoa.

6.- Seigarrenean begirada sakon bat luzatuko dugu egungo erreformaren hastapenetan dauden oinarrietara, eza-



guerazko oinarrietara edo oinarri kognitiboetara, batik bat. Zertarako? Erreformaren oinarrian dagoen Vigotskiren arabera, bertsolaritzaren bidez lan daitekeen adimen estiloa oso emanorra dugula ikusteko. Eta hemen proposatzen den izpirituarekin oso bat datorrena. Erreforma planteamendu politiko eta administratiboez gain, planteamendu soziologiko, pedagogiko, epistemologiko eta psikologikoak ere badaude. Lau oinarri horiek kontuan hartu behar ditugu. Eta funtsean horiek guztiak ditugu Vigotskiren ekarpenean. Bi hitzetan: bere lehenengo ekarpenak Sobiet Batasunarekin batera sortu zituen eta geroago estalinismoak depuratutako ikerlaria dugu; nahiko gazte hil zen; Luria eta Leontiev berarekin ibilitakoak dira. Eta bi horiek izan dira geroztik Moskuko psikologia fakultatea sortu zutenak (60ko hamarkadaren bukaeran). Orain hamar urte hasi ziren erdaratzen Vigotskiren testuak. Del Rio argitalerak bere opera omnia edo obra guztiak argitaratzen ari da.

Vigotskiren arabera, eta zorionez ez Vigotski bakarrik baizik eta beste psikologo batzuen arabera ere bai, duela gutxi arte "adimena" izenaren pean egon dena ez zen definizio zuzena. Esate baterako, testetan nola neurtzen da adimen-koefizientea? Normalean zenbait galderari emandako erantzunen arabera. Erantzunekin multzo bat eginez badakigu zein den adimen-koefizientea, hau da, zenbat dakien eta

dakienaren arabera zer nolako pentsamendu mota duen eta abar.

Adimena, apur ditzagun kateak

Duela dozena bat urte Gilford-en lanei esker, ohiko adimen-koefizientea neurtzean adimen edo pentsamendu mota bat neurtzen dela ikasi genuen: Pentsamendu konbergentea. Beraz, adimen-koefizienteak norberaren pentsamendu konbergentearen gaitasuna neurtzen zuen eta ez besterik. Zer da pentsamendu konbergentea? Halako galdera bati erantzun bakar bat bilatu nahi izatea. Alderantziz egingo bagenu, ordea, galdera bati erantzun bat baino gehiago eskatuko bagenu, beste pentsamendu mota bat sortuko litzateke: pentsamendu dibergentea. Eman dezagun, "zertarako balio du lata honek?" galdegingo bagenu, hamaika erantzun desberdin jasoko genuke: Lata honek kilkerren kaiola egiteko balio du, ileko ruloak egiteko balio du, beste batzuekin batera jarriz baltsa bat egiteko balio du, eta abar. Beraz, dibergente izendatu dugun bigarren pentsamendu hau, beste pentsamendu mota bat da. Ez da erantzun bakarra bilatu behar. Erantzun bakarra baino, erantzun aniztasuna bilatzen da. Bereizketa hau kontuan hartuz adimen-koefizienteari kritika zorrotza egiten zaio. Alegia, ezin da pentsatu adimena konbergentea soilik izan daitekeenik. Adimena askoz ere aberatsa-

goa da, bada adimen mota bat baino gehiago, eta kasu honetan, gutxienez pentsamendu konbergente eta dibergentea bereizterik badago.

Baina Gilford eta Torrance-n ekarpen hauen ondoren, bide beretik egingdako zenbait ikerketek beste bide batzuk urratu dituzte eta beroien bidez adimena hobeto ezagutzeko informazio ugari dugu. Honela, bada-kigu pentsamendu dibergentean landutasuna, jariotasuna, malgutasuna, originaltasuna, sormenezko kapazitatea... topa ditzakegula. Zer esan nahi dute, ordea, kontzeptu horiek? Hitz bitan:

- Landutasuna, alegia, oinarriko ideiak komunikatzeko behar diren extra-xehetasunak goitik-behera lantzea, eraikitzea. Lataren adibidea hartuz, almadia bat eraikitzeke balio izan dezakeela bururatu zaigu. Alegia, lata bat baino gehiago erabiliz eraikuntza bat egitea etorri zaigu burura, eta horretarako lehen lehenik eraikuntza mental bat egin behar izan dugu geure buruan. Hori da landutasuna. Eta neurtzerik badago, izan ere, erantzun multzo horren barruan zenbait, landutasunari dagokionez oso sinpleak izan daitezkeelako eta beste zenbait oso landuak. Era berean, multzoa osatzen duen erantzun kopurua kontuan izanik jarria ere neur genezake, alegia zenbat erantzun eman dituen.

- Originaltasuna ere estatistikoki neur liteke. Eman dezagun adreilu batek zertarako balio duen galdegiten dugula. Eman daitezkeen erantzunen artean bi edo hiru izango dira ohikoenak, horiez gain, ordea, izango da bestelako erantzunik ematen duenik. Aparteko erantzun horiek, besteetatik aldentzen diren neurrian nabarmentzen dira, tarteko distantzia hori estatistikoki neur daiteke.

- Malgutasuna, lehengo adibidearekin jarraituz, gauza bera modu desberdinetan erabili ahal izatea da, hots, funtzio bat baino gehiago aitortzea, zurruntasuna saihestuz alternatiba bat baino gehiago ikusteko gai izatea. Hori ere neur daiteke.

- Orientabide analitikoa: Vigotski Uzbekystanen ikertzen egon zenean hauxe galdetzen zien bertakoei: "Behi bati zergatik ematen zaio behi izena? Egin ezazu gauzak izendatzeko izenak asmatzen ari zarela. Behi bati jarriko bazenien txakur izena eta txakurrari behiarena? Behi horrek ba al du adarrik? Emango al du esnerik?...". Guk "ez du adarrik" esango genuke. Argi eta garbi. Uzbekoek, ordea, ez zuten asmatzen. Zergatik ez zuten asmatzen Uzbekystanen zeuden baserritar haiek? Euren adimena hizkuntzari erabat atxikita zutelako. Ez ziren gauza izena eta izana bereiztuz izen batez beste elementu bat izendatzeko. Ez zuten garatu mendebaldean dugun pentsamendu silogistikoa. Hori eskolaren bidez lantzen da. Izan ere, mendebaldean eskolak izena eta izanaren arteko lotura hori apurtzen du. Eta horregatik guk badaukagu hizkuntza beste esanahi batzuekin erabiltzerik, Uzbeko hauek egiterik ez dutena. Jar dezagun adibide erraz bat, Uzbeko hauei galdeginez gero:

- Abenduan joango al zara Moskura

"Bertsolaritzaren bidez eskolak hizkuntza biziaren ateak zabaltzen dituela ikusten dugu eta hori oso garrantzitsua da"

mahatsa saltzera?

- Ez, ez.

- Zergatik ez?

- Abenduan ez da mahatsa biltzen, uzta irailan biltzen da.

- Baina demagun bazoazela.

- Ezin da, ezin da uzta irailan biltzen baita.

Atxikita daude, ikuspegi ekologikoari erabat egokituak, bortxatuak, harrapatuta, mugatuta eta hizkuntza bera ere barnean biltzen dute. Orientabide analitiko, silogistikoa hori, gure mendebaldeari dagokion arrazoizko, pentsatzeko bide garrantzitsuenetako bat da.

Norberegaintasuna: (independentzia eta menpekotasuna). Badago pentsamendu mota bat oso menpeko pentsamendua dena, beti autoritateekin batera doana, errepikapenean oinarritzen dena. Pentsamendu dibergentea, ordea, independienteagoa da, menpekotasun gutxiagokoa eta errealtatearen errepresentazio askeagoa egiteko gai da. Colin Baker irakasle eta ikerle galesak ere horri eusten dio, alegia, elebidun orekatuak elebakarrak baino askoz independienteagoak direla bere praktika elebidunak horretarako trerbatzen baititu honek (Ikus C. Baker (1988): *Key Issues in Bilingualism and Bilingual Education. Multilingual Matters Ltd. England, Clevedon*, edo *Tantak 5*, (25-50. or.): elebidunak elebakarrak baino askoz independienteago).

Bertsolaritzarekin oinarri kognitibo hauek guztiak lantzen dira. Has zaitzte begiraten: hitzen aldetiko jariotasuna; malgutasuna modu ezberdinetan antolatzean (oinak emanda, esaterako); originaltasuna sustatzen; landutasuna jorratzen, bertsoa modu ezberdinetan eginez; orientabide analitikoa lantzen, hizkuntzaren mugak apurtuz hitz berdinarekin esanahi ezberdinetako gauzak bilatuz; menpekotasunetik ihes eginez, norberak bere bertsoak eginez... Beraz, pentsamendu dibergente eta independientea gartzten da bertsotan.

Bertsolaritza eskolatze bide honetan hori norberak bilatu behar duena da,

landu behar duena. Zer bilatu behar duen jakin behar du, noski.

Hau guztia nola ikusten da curriculumean? Esan bezala, funtsean curriculumak lau iturburu ditu: iturburu pedagogikoa, psikologikoa, epistemologikoa eta soziologikoa.

Zer landu Curriculumean?

Hori dena ikus dezakegu bertsolari-tzaren baitan.

Alderdi pedagogikotik begiratu bertsolariak ekoiztea eskatzen du, aktibo izatea, norberak ekoiztu beharra, erreformak eskatzen duena, hain zuzen.

Alderdi psikologikotik begiratu, berriz, ezaguerazko bideak jorrazteko aukera ematen du. Pentsamendu dibergentea, independentea, norberarena, sormenezkoa garatzen dira bertsolari-tzarekin. Alegia, malgutasuna edo plastikotasuna.

Alderdi epistemologikotik begiratu bertsolariak gai ezberdinen arteko lotura egiteko aukera eskaintzen digu. Bertsolari-tzarekin historia edeki lan daiteke. Pentsa Txirritaren furo eta karlistadei buruzko bertsoetan edo Urretxindorrarenetan, nazionalismoaren sorreraz. Hor dena epistemologikoki batu egiten da.

Eta alderdi soziologikoan duen eragina bistakoa da. Oinarrizko eta Bigarren Hezkuntzarako diseinu curricularak honela dio: "esta fuente sociológica contribuye decisivamente a la fijación de las intenciones educativas que la sociedad demanda de la escuela, como transmisora del patrimonio cultural ..." Eta gero ikusten da zehatz-mehatz "que refleja la identidad cultural desde la historia de la lengua, las costumbres, el folclore ...".

Bertsolariak, bada, alderdi horiek denak jorrazteko aukera eskaintzen digu. Arazoa, ordea, hori egiteko modua da, eskolan nola egin daitekeen. Nola programatu, nola egituratu helburua lortzeko. Izan ere, bertsoak besterik gabe egin daitezke baina, jakina, gure helburura iritsi nahi baldin badugu hainbat alderdi landu

"Ahozkotasuna erreforman bete-betean sartzen da eta bertsolariak badu zer eginik, badu zer emanik"

beharra dago, hizkuntzarena esaterako: hizkuntza deskriptiboa, hizkuntza narratiboa, silogistikoa, azalpenekoa, didaktikakoa, literatur baliapideak... Ez da guk asmatua, Oinarrizko eta Bigarren Hezkuntzarako diseinu curricularrean gauza hauek guztiak aipatzen dira.

Deskribapena, narrazioa, diskurtsoa, azalpenerako bide didaktikoak, poetikoak... bakoitza jorrazteko badago bide bat eta norberak egin behar du. Oso polita da, esaterako, testu poetikoen didaktika jorratzea bai eta gero horrek sakonean dituen ondorioak

aztertzea ere. Gabriel Janer Manilak (J. Pallach pedagogi sariaren irabazlea) *Poyesis* edo ekoizpen poetikoa lantzeko literatur figurak lantzea proposatzen du. Eta figura literarioak bezalaxe, ahozkaritzaren genero desberdinak (bapatekotasuna, bertso paperak, koplak, atsotitzak...) lan daitezke.

Gakoa ahalegin honetan eman beharreko urratsak norberak nola egituratzen dituen da. Jakina, helburua ez da arlo desberdin horiek lantzea. Horrekin batera beharrezkoa da erreformak planteatzen dituen ardatzetan oinarrituz garapenaren behaketa kritikoa egitea. Egindako bertsoak behatu eta kritikatu egin behar dira, bertso bakoitzean zer nolako joerak azaltzen diren, zer nolako edukinak, gauza berriak, zer nolako ikasgaiak, bideak, teknika nola erabili izan den...

Hiru hauek dira erreformak proposatzen dituen pedagogiako baliabide garrantzitsuenak: irakaslearen ekimena, irakasleak kontzeptualki zer ematen duen eta irakasleak zer nolako bideak erabiltzen dituen kontzeptu hori azaltzeko. Hori bertsolari-tzara ekartzerik ere badago.

Beraz, bertso gintzarako ez dugu aparteko gauzarik egin behar. Alderantziz, bertsoen bidez bideak, joerak, testuak eta hori guztia irakats daiteke. Irakaslearen lana bitarteko horiek aurrean duen egoerara (testuinguru eta ikasleria batik bat) egokitzea da.




Eskolako Bertsogintza Erreformaren ildotik



Juan Mari JUARISTI
Koldo Mitxelena irakaslea

Erreformaren ikuspuntutik eskolan bertsogintzan aritzea oso interesgarria izan daiteke. Hala ere, komenigarria da beti dioguna ahal den neurrian zehaztea. Egia esan, maizegi curriculum-diseinuetan zein programetan argia dirudiena irakasleoi nahi baino gehiago lausotu ohi zaigu egunez egun gelan gauzatzean, eta batzuetan zailtasunak izaten ditugu teoria eta praktika ongi uztartzeko. Beraz, eta

gurera ekarriz, eskolako bertsogintza erreformarekin bat datorrela nabarmentzearekin batera, gure eguneroko jarduna ere zertxobait zehazten ahalegindu gaitezke, berez bertsotan aritzetik harantzago doan ariketa izanik, zinez erreformari jarraiki burutu dezagun. Horri guztiari erantzuten saiatuko naiz adibide praktikoak emanez eta, besteak beste, hiru lanketa zehatz proposatu eta komentatuz.



Dena dela, adibideetara jo aurretik, bertsogintzaz arituko naizela azpimarratu nahi nuke (eta ez nahastu bertso-eskolakoarekin). Izan ere, eskolan, -euskara ardatz- hizkuntza-arloan Oinarrizko Curriculum Diseinuak eskatzen digunari erantzunez burutu nahi dugu gure lana; bertan txertatuz, alegia, eta ez bertsogintzak berez izan ditzakeen beharrei arreta jarriz soilik. Edonola, bertso-eskoletako ikasle gehienak eskolatuak direnez, proposamenak hor ere egiteko interesgarriak direla esango nuke, bertsogintzari kalterik ez eta onura baino ez baitiote ekarriko ziurraski.

Nire proposamenak ertainetan izandako esperientzian oinarritzen dira, BBBko 2. eta 3. mailan hain zuzen ere, eta hemen aurkeztuko ditudan bezala antolatuta, DBHko 2. zikloan egiteko egokiakizandaitezke. Edozein moduan, etapa bakoitzak dituen ezaugarrien arabera moldatzen baditugu eta gure beharretara egokitu, DBHko 1. zikloan edo Lehen Hezkuntzan ere erabilgarriak direlakoan nago.

Ariketak aukeratzekoan desberdinak izan daitezkeenak ekartzen saiatu naiz, ahalik eta ikuspegi zabalena eskaini asmoz.

Lehen ariketa: ideien lanketa bideratua

Ideien lanketa ohikoa dugu bertso-gintzan. Jakina denez, bertsolariak atzekoz aurrera pentsatzen eta osatzen du bertsoa bat-batean. Eta horrek zera esan nahi du, azken puntua erabakitzen duela lehen-lehenik; gero egiten duela, azken horretan bideratuko duen mezua prestatuz, betelana. Beraz, normalean, azken puntu horretan ematen dio aditzera entzuleari esan nahi duena, eta gogoratu ere, honek batez ere azken hori gogoratuko duela bertsoa entzun ondoren. Horregatik, guztia-aren jakitun, bertsolariak ezinbestez zaintzen du bertsoaren azken puntua, ez baita amaiera eskasa duen bertso onik.

Azken ideia edo puntu horien trebaketa-lana arrunta da bertsogintzan aritzen garenontzat, batik batik ikasleria-aren maila bertsoan jarduteko modukoa ez denean (eta hasiera batean behintzat, halaxe izaten da gurean). Bakarka jarritako gaien inguruan nahiz ofiziotan egin daiteke aukeran; eta ahoz zein idatziz. Nik, gehienetan, ahoz egitea hobesten dut, ahozko trebaketaren

premia larria baita gure eskoletan. Hain zuzen ere, horrexegatik erabili nahi dut bertsogintza geletan bereziki ahozkotatzen lantzeko; gainera, funtsean, ahoz egitekoa da bertsoa.

Honelaxe egin ohi da. Gai baten inguruan ikasleek azken puntua edota, besterik gabe, azken puntuaren plazaratuko luketen mezua bota behar dute bat-batean. Hots, neurtzen trebatuak badira, lehen aukerari helduko diogu orduan, eta azken puntuak osatuz egingo dugu lana; baina hala ez denean, ideiekin has gaitezke, soil-soilik, neurtu gabe.

Nolanahi den, ariketa bere horretan, ideiak landu bitartean hizkuntza eta komunikazioari buruzko gogoeta ere eragin nahi dut ikasleengan, aukera paregabea eskaintzen baitigu horretarako. Eta gogoeta hori gauzatzeko, hizkuntzaren funtzioetatik eta horiek burutzeko eskura ditugun egituretatik abiatzea proposatzen dut; eta beraz, lan bideratua egitea. Hau da, ariketa-aren nondik-norakoak azaldu eta gero, hizkuntzaren funtzioen berri emango diogu ikasleari, eta hizkuntzari funtzio edo egiteko desberdina ematen diogula helburuaren arabera irakatsiko diogu. Ondoren, funtzio bakoitza burutzeko dauden aukerekin eta horiek aditzera emateko euskarak eskaintzen dizkigun egiturekin zerrendatxo bat osatuko dugu.

Hasieran funtzio jakin bat beteko duen jarrera edo egitekoa proposatuko diogu ikasleari gaiari erantzun diezaion, eta baita hori burutzeko erabil dezakeen egitura bat ere; gero, ikasleak ulertuz doazen neurrian, eta aukera guztiez jabetu ahala, jarrera eta egituren zerrenda zabalduz joango gara pixkanaka, askatasun osoz aritzeko proposatu arte azkenean.

Honela egingez, lehen egunetik has daitezke ikasleak ideiak lantzen, eta bat-batean gainera; eta ezer ez asmatzeak dakartzen ezintasunak sahistuz beti. Horra lehen abantaila. Agian, bideratuegia dirudi lan egiteko era honek, baina ideiekin lanean hasteko baino ez da. Nire ustez, behin komunikazioari buruzko gogoeta hori burutu ondoren, ikasleak bere kasa lan polita egiteko garaia ere iritsiko da.

Edozein moduan, trebatuagoa denarentzat ere, edo eskolaren premiarik ez duenarentzat (bertso-eskoletan...), hausnarketa hori eragitea eta komuni-

kazioaren ikuspuntutik lan egitea oso egokia dela esango nuke, bertsolariak intuizioz egin izan duten lan luze eta neketsua azkartu egin baitaiteke.

Hona hemen adibide bat:

ADIBIDEA: Bakarka, hiru bertso egiteko gaia: "Azkena heldu zaren txirringularia zara"

1.- Lehen amaiera:

Funtzioa: Erreferentziala (Zerbait jakinarazi, azaldu).

Aukera: Eragozpenak gainditu.

Egitura: *Nahiz eta...* (Aukeran hori ditugu -arren/ba- ere...)

Ikaslearen puntua:

Lehiatu behar da egunero nahiz eta askotan sufritu

2.- Bigarren amaiera:

Funtzioa: Erreferentziala.

Aukera: Zerbait baieztatuta.

Egitura: *Badakit...* - (e)la (Beste batzuk ere izan daitezke: *Egia da...*

- (e)la / - (e)na...)

Ikaslearen puntua:

Orain badakit nire giharrak indartsu ez dabiltzala

Funtzio hau betetzeko aukera ugari dugu dena den: azalpenak zergatia aipatuz eman (*Aditz laguntzailea* + - (e)ta); iritzia bota (*uste dut...* - (e)la); egoera deskribatu (konparaketak egingez adibidez, *bezain / bezala*; nola aipatuz, moduan...)

3.- Hirugarren amaiera:

Funtzioa: Adierazkorra (Barne-egoe-aren berri eman).

Aukera: Hausnartu, kezka plazaratu.


Egitura: *Galdera erretorikoa, zalan-tzazkoa (ote).*

Ikaslearen puntua:

Heldu ote zait niri txirringa eskegitzeko eguna?

Adibide honetan erabilitakoez gainera, funtzio eragilea ere hortxe dugu, aginduak emateko (*zaitez, ezazu...*), edota proposamenak eta galderak egiteko. Zenbaitetan bakarka ageri bada ere, ofiziotan arrunta da oso funtzio honen erabilera.

Nire ustez ariketak bete-betean erantzuten dio erreformak eskatzen digunari. Batetik, ahozko adierazpena ere lantzeko esaten digu, gure lana ezin dela entzumena, irakurmena eta idazmena lantzeraino mugatu.



xe da hain zuzen ariketa honen bidez egingo dugun lehen gauza, gure ikasleak hizketan jarri; baina ez hori bakarrik, baita hizkuntza eta komunikazioaz gogoeta egiten ere (funtzio eta egituren inguruan), eskatzen zaigun moduan hain zuzen; erreformaren arabera, unibertsitate aurreko etapetan, ikasleak hizkuntzaren teorietan gaituak baino erabiltzaile kontzientek bihurtu behar baititugu. Bestetik, metodologia transmititzaileak baztertu, erreformak didaktika aktiboak eta sormena landuko dutenak ere gomentatzen dizkigu, eta irakaslearen gidarritza eta ikaslearen protagonismoa aldarrikatzen ditu. Proposamenean, beti berea den mezua sortuz, ikasleak ezinbestekoa izango du jarrera aktiboa eta sortzailea garatzea, eta gure gidarilana prozedurak seinatzera mugatuz, bera izango da beti protagonista.

Ariketa honi buruzko iruzkina amaitzeko, zera aipatu nahi nuke azkenik; bertsogintza oso egokia dela egunero ematen diren egoera komunikatibo arruntak gelara eramateko; bertsotan aritzea, berezko duen teknika trebetasunez erabiltzeaz gainera, egoera horiek menderatzea baita funtsean. Esaterako, bakarka kantatzean (edota ideiak adieraztean), azalpenak eta iritziak emanez, gai bat garatzeko, asmoak plazaratzeko edota hausnarketa burutzeko aukera izango dugu gelan; eta ofiziotan, berriz, solaskide desberdinen artean sortutako egoerak errepikatuz, elkarrizketak lantzeko abagunea (eztabaida, adostasuna, solasa...).

Honek guztiak, berebiziko garrantzia izan dezake gaur egungo eskolan, murgiltze-programetan bereziki, eskolaz kanpo erdaraz bizi diren egoeretan alegia; izan ere, oso modu egokia izan daiteke arlo informala landu eta euskararen erabilera bultzatzeko. Orobat, lan interesgarria egin daiteke ber-

tsogintzan komunikazioa zentzu zaballean aztertzeke. Adibidez, oso modu praktikoan landu daitezke diskurtso zuzena eta zeharkakoa, hizketa mailak, trataerak edo erregistroak, aurrez gaiak eta ofizioak ongi prestatu eta, ongi hautatutako bertsoak gai hauen inguruan aztertuz, betiere zeregin horietara bideratzen badugu gura lana.

Bigarren ariketa: esaerak osatu amaiera emanda

Aurreko ariketaren osagarria da, betelana; azken ideia sortu beharrean, azken hori emanik bertsoa osatzeko geratzen zaiguna burutzea. Arestian aipatu dut azken puntua edo mezuaren prestaketarena. Agian ongi burutzeko bertsoak eskatzen digun lan zailena da. Eta ongi burutzeak zera esan nahi du, gehiegi ez igertzea betelana dela; ongi prestatzea azken hori, diskurtso koherente samarra egituratuz.

Aurrekoaren ondoren ere egin dezakegu ariketa hau, ahoz edo idatziz, mailaren arabera, eta han ateratako puntuekin bertsoak osatu besterik gabe, ikasleek beti funtzioa eta egituren inguruan lana eginez. Alabaina, bertsogintzaren bidez ahozkoasunarekin zerikusia duten beste hainbat arloekin ere lan egin daitekeenez, hizketa biziaren emaitza diren lokuzioak, esaerak, hitz jokoak edo atsotitzak lantzea proposatuko dut amaiera emandako ariketa klasikoaz baliatuz.

Esaeren lanketa euskara irakasleontzako betiko kezka da. Gehienetan, gure ikasleek irakurri, entzun edo idatzi baino ez dute egiten, askotan nahikoa analitikoak eta testuingururik gabekoa diren ariketak burutuz gainera eta ez dira era komunikatiboan adieraztera inoiz heltzen. Oraingoan, erabiltzen jarri nahi ditugu, testuinguru egokia aurkitu eta, ahoz, aditzera eman.

Ez ditugu era honetako amaierak

proposatuko beti, noski. Noizbehinka egiteko dira. Neurritz, gehiegikeriarik gabe. Gainera, ikasle bakoitzari bat emanez gero, saio bakarrean mordska landuko dugu, eta beraz, gure helburua betetzeko nahikoa izan daiteke tarteka egitearekin. Esamoldeak gehiago finkatu nahi baditugu, berriz, eta gainerako ikasleek erabilitakoak ere besteek gogoan gorde ditzaten, ariketa gehigarriren bat presta dezakegu, guztiekin zerrendatxo bat osatuz adibidez, bakoitzaren esanahia azaldu dezaten eta antzekoak bila ditzaten eskatuz.

ADIBIDEA:

Amaiera: **Hamaika ikusi** dudan arren nik ez nuen hori espero.

Ikaslearen bertsoa:

Ustelkeria ta iruzurra

nabariak honez gero

Mario Conde ta Roldan ere bai

ministro edo bankero

guztiak ere sartu ta irten

kartzelatik egunero

Hamaika ikusi dudan arren nik

ez nuen hori espero.

Hona ondoren amaiera gehiago adibide gisa:

Ikusten badut **zuriak eta beltzak** adituko ditu.

Luzaro gabe etor daiteke denok nahi dugun bakea.

Aizu **egiten denean sua ikusi daiteke** kea.

Mingain zuriaz dabilzan hoiek iluna dute bihotza.

Harri eta zur geratu nintzen dena jakin nuenean.

Ahotan dabil oraindik ere egun hartako kontua.

Ariketa honekin, euskararen alderdi esanguratsu eta adierazkorrena egoera komunikatibo batean txertatuz jorratzeaz batera, testu-koherentzia, koherentsia eta sintesia landuko ditugu era berean. Ahozko testua den heinean - eta halaxe da, neurria eta errima duen testua- bertsoak egituraketa koherentea erakutsi behar du bere helburu komunikatiboa beteko badu. Eta horretarako ongi antolatuta behar da ideien hurrenkera bertsoa osatzerakoan, eta barne koherentsia lortu ere bai (antolatzaileak, loturak eta bertsoa denez bereziki elipsia erabiltzen ikasiz). Beraz, testugintzan arituko da ikaslea azken finean; amaierari tes-

tuinguru egokia (gai bat, alegia) aurkitu eta ondoren amaiera hori prestatzeko ideien antolamendu koherentea eginez. Gainera, ongi lotu beharko du guztia puntuz puntu, kohesioa emanez bertsoari. Eta bidean sintesi gaitasuna ere garatu beharko du, puntuak neurri mugatua duenez, ideiak hitz gutxitan bilduz.

Laburtuz, testua eta komunikazioa dira ariketa honen oinarriak, erreformaren ildotik hain zuzen ere; honek, hizkuntza-arloari dagokionez, diskurtsoa edo berbaldia ardatz hartzen duen ikaskuntza hobesten baitu, gaitasun linguistikoari baino komunikatiboari -eta ondorioz, testugintzari- lehentasuna emanez.

Hirugarren ariketa: oinen sailkapena

Errimak, jakina, garrantzi handia du bertso gintzaren ikuspuntutik. Bere trebaketa gure jardunean eguneroko kontua dela esan daiteke. Ohikoa. Halaber, errima lantzeko ditugun aukerak anitzak dira. Aukera hauek bati heldu nahi diot nik: oinen sailkapenari.

Errima ona lortzeko hoskidetasuna ezik, garrantzitsua da oinen kategoria gramatikala ere kontuan hartzea, kategorien nahasketa hobesten baita errimaren aberastasuna baloratzean. Bestalde, oinak gogora ekartzeko modurik errazena kategoriaka sailkatzen da ditugun heinean jabetuko baikara zabaltzen zaizkigun aukera guztiez. Honen inguruan egingo dugu hirugarren ariketa, eta ikasleak oinak sailkatzeko jarri, errimak landuz, aldi berean hizkuntzari buruz hausnar dezaten.

Errima kateak osatzen saio gehienetan egiten den ariketatxo da. Ahoz, aurrekoak esandako oinari beste bat erantsi behar zaio jarraian, potarik egin gabe, noski. Oraingoan idatziz burutuko dute ariketa. Horretarako, ikasle bakoitzari errima desberdin bat emango diogu paper batean idatzia, eta honek beste bat erantsiz albokoari pasako dio berriro. Horrela, itzuleran, nork berari dagokion oinez osatutako zerrenda izango du aurrean, gelan diren ikasleak beste zerrenda osatuz. Hurrengo lana, zera da, errima horiek hartu eta kategorien arabera sailkatzea multzoka; eta ondoren, multzo bakoitza gehiago zabaltzen saiatzea. Azkenik, txartelak egin daitezke eta gelako

hormetan jarri; bat-batean saiatzerakoan adibidez, ongi etor dakiguke aurrean errimak sailkaturik izatea.

ADIBIDEA: Hoskidetasuna(-ena) (Ikus beheko taula)

Errimak honela landuz, ikasleak helburu praktikoa duen ariketa burutuko du, oinen inguruan hausnartuz eta bertso gintzarako baliagarria izango zaion txartela osatuz bide batez; beraz, ez du egiteagatik egingo sailkapena, eta helburu praktikoa izatea, ez bairik gabe, motibagarriagoa da ikaslearentzat. Beste alde batetik, berak egingo du lana, eta lan horren bidez gauzatuiko da hizkuntzari buruzko gogoeta. Hortaz, ikaslea dugu protagonista oraingoan ere, eta irakasleak gidatuta, jarrera aktiboa bultzatuko dugu. Kontzeptuak ere, morfologia, sintaxia eta lexikoari dagozkionak, ekinaren ekin ez eskuratuko ditu lan horren harian, eta ez guk azalduta, metodologia transmititzaile baten bidez; erroformak eskatzen digun jardunean oinarritutako didaktikari jarraiki baizik.

Antzeko ariketak egiteko aukerak anitzak dira bertso gintzan. Pare bat baino ez aipatzearen, neurketa tratatzeko sinonimoez baliatu gaitzke esaterako, silaba kopuru desberdinak lor-

tuz, ideia bera era desberdinetan emateko aditzera eta hiztegia landu horrela; edo, oinekin lehiaketa egin dezakegu errimak jorratzeko, untzien joko ezaguna moldatuz adibidez (lauki bakoitzean errima jakin bati jarraiki oinak kokatu eta, tiro bakoitzeko argibide bat emanez, bestearenak asmatzen saiatuz); oso egokia da oinak eta ideiak lotzeko.

Egia esan, bertso gintza erreformaren ildotik eskolak dituen helburuetarantz bideratzeko nahikoa da irudimenari apur bat eragin eta eguneroko lanean antzekoak asmatzen joatea. Gaurkoan batik bat hizkuntza jorratu nahi izan dut, baina gure historia hurbila ezagutzeko bezalaxe (bertso zaharrak entzunez), gai desberdinei buruz arituko diren heinean (giza-harremanak, drogak, eskola, ingurunea, sexualitatea...), hainbat zehar lerro lantzeko ere oso egokia izan daiteke, eta ez ohikoa gainera, desberdina. Orain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hautazko irakasgaiak aurkezteko aukera dugunez, zuek ere bertso gintzaren apustua egin dezazuen animatzen zaituztet.

OIN-ZERREDA	IKASLEEN SAILKAPENA
dena	(Erlatibozko esaldiak) <i>dena, duena, dioena, nintzena...</i>
dioena	
aurrena	(Zenbaki ordinalak) <i>aurrena, azkena, lehena, bigarrena...</i>
onena	
herena	(Kopuruekin zerikusirik dutenak) <i>herena, laurdena, dena...</i>
gorriena	
azkena	
inorena	(Deklinabide kasua: norena) <i>Andonirena, inorena, norena...</i>
pena	
politena	(Superlatiboak) <i>onena, politena, handiena, okerrena,...</i>
herrena	
Elena	(Erdal izenak) <i>Elena, antena, kondena, melena, pena...</i>
kemena	
etena	(Aditz partizipioak) <i>etena, irtena...</i>
kirtena	
barrena	(Postposizioa) <i>barrena</i>
bigarrena	
izena	(Izenak) <i>izena, barrena, kemena, kirtena, sena...</i>
Andonirena	
hurrena	(Adberbioak) <i>hurrena</i>
handiena	
norena	
zekena	(Izenondokoak) <i>zekena, kirtena, lerdena, herrena, (alaena)...</i>
ederrena	

GUTUNAK

Zuen kezkak,
iritziak,
desadostasunak
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.



Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

UZTAILA



EAEko irakaskuntza pribatuko lan hitzarmena sinatu da

Ekainaren 25ean patronalak eta ELA sindikatuak (gehiengo sindikala) irakaskuntza pribatuko lan hitzarmena sinatu zuten. Lan hitzarmen honek 12.700 langileengan izango du eragina. Hau da, ikastolak eta haurtzaindegia izan ezik irakaskuntza pribatuko eremu guztia sartzen da akordio honen esanetara.

Irakasleak prestatzeko zentro berria

Aspaldian eskatzen ari zirena badirudi irailatik aurrera gauzatu delako. Seaska (Ipar EH), Calandreta (Okzitania) eta Diwan (Breitania) eskoletako irakasleak prestatzeko zentro pedagogikoa badirudi Okzitanian kokatu delako. Irakasleen formakuntza berriaz, Baionan, Roazhonan (Rennes) eta Montpellierren emango dela zabaldu da.

Hezkuntzako aldizkariak

Herrialde, arlo eta sare desberdinetako aldizkariak iristen zaizkigu. Guztiak aipatzea ezinezkoa egiten zaigunez, iritsi zaizkigun azkenak aipatuko ditugu.

Alde batetik, ikastetxeetan argitaratzen direnetatik Donostiako EASO institutuko "EASO NEWS" ingeleza, euskara eta gaztelania erabiltzen dituen berri-papera, Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolak argitaratutako "Etorkizuna lantzen" aldizkaria

eta Hernaniko Elizatzoko BHIkoek aurkeztu duten aldizkaria ikastolaren izen berdinarekin. Bestetik, "Eskola Publikoa" deritzan STEE-EILAS sindikatuaren ekaineko aldizkaria.

Baina gaur arreta berezia eskainiko diogu BIGEk (Bizkaiko Gurasoen Elkarte) argitaratu berria duen "ibiltzen" aldizkariari. Diseinu

ausarta, zaindua eta erakargarria erabiltzen du udarari begira kaleratzen duen 15. ale honetan. Eduki aldetik

hauek dira aipatzen dituen gai nagusiak: Ikasbi (iparraldeko eskola publiko elebidunen guraso elkarte), Gazterreka (Ekologiaz kezkatuta dagoen gazte taldea), fracaso escolar? deritzan artikulua, Kalitatezkoekin-tza osagarriak deritzana, azkenean...oporetan!, kirolak, ejercer la auto-

nomia en los centros, liburuak testu edo luxuzkoak? eta Bizkaian zehar agenda. Atal hauek osatzen dute aldizkariak daukan 24 orrialdeak. Hizkuntza aldetik gaztelania nagusitzen bada ere, bi hizkuntzak erabiltzen ditu (euskara eta gaztelania) hiruhilabetekari bezala agertzen zaigun aldizkari modernoak. Zorionak eta luzera jarrai dezazuela!



Irakasleen %30ak ahots arazoak ditu

Klarion hautsak eta eztarria gehiegi behartzeak irakasleen %30arengan ahots arazoak sortzen omen ditu. Arazoa nolabait zuzentzeko neurriak hartzea komeni da, besteak beste, talde handiak direnean (25 ikasle baino gehiago) mikrofonoa erabiltzea lagungarria omen da. Bestalde, ez

erretzeak, temperatura (20-22°) eta hezetasun (% 60) egokiak, eta hauts gutxi sortzen duten klarion bereziak erabiltzeak asko lagundu omen dezakete.

Irakasleen artean ematen diren gaixotasun baten %16a ahots arazoei dagokiela adieraztera eman da.

Selektibitatea dantzan

UBI gainditu ondoren unibertsitateko bidea hartzeko selektibitatea dator. Jarraian hegoaldeko datuak agertzen ditugu.

	Matrikulatuak	Gaindituak	%
Araba	1.856	1.780	95,9
Bizkaia	7.201	6.810	94,5
Gipuzkoa	4.598	4.309	93,7
Nafarroa	2.978	2.621	88,0

Hizkuntz ereduei begiratzen badiegu, D ereduak emaitza hobeak ematen dituzte A, B ala gaztelania hutsezkoek baino. Nafarroako emaitzak aztertu besterik ez dago: D ereduak ikasi dutenetatik %90,8k gaintu du selektibitatea, gaztelania hutsean aritu direnetatik %87,7k eta A ereduak aritu direnetatik %80,9k besterik ez du gaintu.



Liburuak eta abestia Kilometroak 97rako



Kilometroak 97 dela eta Pasaia-Lezo lizeoak “Euskarak deus ez du arrotz” abestia aurkeztu berri du.

Aldi berean, hiru liburu ere argitaratzeko asmoa agertu du. Lehenengoak, Biktorianoa Iraolak idatzia, “Pasaian eta zenbait ipuin” izendapean argia ikusi du jada.

Ikasbatuaz; pauso sendoak emanez

EAEko ikastolak publikatu zirenean sortu zen

Ikasbatuaz elkarteak. Publikazio prozesuaren aurrean elkarrekin joateko eta amankomunak ziren gaiak elkarrekin eztabaidatzeko asmoa zuten partaideek. Hein batean, ekintza hori bete dute, baina oraindik ere elkartuta eta lanean jarraitzen dute, gauza bat zintzilik baitago: euskal eskola publiko berria.



Ritxi Maritxalar, Ikasbatuaz-eko ordezkaria

Ikastolak Ikastolen Federazioko partaide dira eta ohituta daude taldean lan egiten. Publikatutako ikastolak horretaz ohartu ziren. Alegia, talde bezala hobeto funtzionatzen zutela, gauzak lortzeko hobe zela, esperientziak trukatzeko ere bai... Horrela, Ritxar Maritxalar, Ikasbatuaz-eko ordezkariak dioen bezala, "animatu egin ginen juridikoki eta legalki elkarte bat sortzera".

Horrela sortu zen ikastetxeen ordezkari den elkarte hau. Ritxarrek dioen bezala, "sortu ginenean zentroak ordezkatzeko zituen erakunderik ez zegoela konturatu ginen. Guraso

Elkarteak, sindikatuak, zuzendarien koordinadorak... bazeuden, baina ez osoki zentroa ordezkatzeko zuen elkarterik". Horrelako esperientziak bazeuden eta badaude Katalunia eta Europan, eta hemen ere bide bera hartu zuten.

Hasierako helburua garbi zuten kideek. "Euskal eskola publikoaren legea ez zela gure gustukoa ikusten genuen, eta euskal eskola publiko berri bat bultzatzeko asmoa hartu genuen" azaldu digu Ritxarrek.

Helburu hori aurrera eramateko lehenengo taldea sendotzeari ekin diote, eta orain zabaltzea da asmoa.

“Jendeak ez dezala pentsa ikastolakoak bakarrik gaudenik taldean. Talde zabala eta irekia da, eta ikastetxe guztiek daukate lekua. Guk uste dugu nolabaiteko zubia izan behar dugula. Ikastolatik at, ideia eta helburu berdinak dauzkaten ikastetxeak gure taldean lekua badaukate, hori oso garbi daukagu”. Betiko eskola publikoan eta beraien eskolan oinarriturik sortu nahi dute euskal eskola publiko berria, eta horregatik eskola publiko guztiek daukate lekua Ikasbatuaz-en.

Ikastola eta eskola publiko tradizionalak ohitura desberdinak izan dituzte eta talde berean elkartzeak txokeak sortzen ditu zenbaitetan. Ritxarrek dioenez, euskal eskola publiko berri batez borrokatzeak eta planteamenduak aurrera eramateak lan handia eskatzen du, eta batez ere ideia eta planteamenduak argi edukitzea; bai euskararekiko, bai antolaketa mailan, bai administrazioaren aurrean gauzak errebindikatzeko. “Gure sisteman jendea nahikoa eroso da eta kosta egiten da ideia hauek gauzatzen. Horregatik gauzak garbi eduki behar dira”.

Idea garbi horien artean osatzen da Ikasbatuaz-ek nahi duen euskal eskola publiko berria: eskola publiko eta nazionala, Nafarroa eta Iparraldea barne, eta autonomia askoz gehiago duena. Oinarrian autonomiaren eskaera dago.


Hauek ideiak eta helburuak dira, baina oztopoz beteriko bidea gainditi beharra dago beraien lorpena eskuratzeko. Horren adibide garbia ditugu euskararen inguruan sortutako tirabirak. Arlo honetan administrazioak hartutako erabakiak euskararen aurkako eraso zuzenak dira. “Euskaldunak ez diren irakasleak soberan daude eta hauekin zerbait egin beharra dauka administrazioak.

Baina orain arte emandako pausoak ezin ditugu inola ere onartu. Sektore txiki bati irteera ematearren, zenbait eskolek dauzkaten proiektuak kolokan jar litezke”. Izan ere, eskola publikoak daukan arazorik larriena langileri erdalduna da, birziklatu ez dena. Zer egin horiekin? “Egoera pertsonalak oso errespetagarriak dira” Ritxarrek dioen bezala, “baina ulertu behar dena da eskola ez dela euskaltegi bat, ez dela pertsona horiek birkokatzeko leku bat”. Arazo pertsonal hauen gainetik, eskola bakoitzaren proiektua errespetatzea eskatzen dute. Hezkuntza proiektuak langileriaren gainetik egon behar du, lehenetsua eman behar zaio. “Euskaraz Bizi” proiektua dagoen ikastetxe batean, pertsona guztiek euskaldunak izan behar dute, ezin da zirrikiturik utzi, ez jangelako langileen artean, ez autobuseko arduradunen artean...”.

Administrazioaren aldetik izugarritzko presioa dagoela aitortu digu Ritxarrek. Helburuak garbi eduki behar direla errepikatzen du, bestela dena pikutara doala. “Efektu boomerand” bat da; orain arazoak konponduko dira, baina hemendik bost urtera berriz agertuko dira.

Ikasbatuaz-eko kideek badakite arazoa konpontzea zaila dela, baina aurrera egiteko prest daude. Ikasturte hasieran zuzendaritzarako laguntzaileak jarri zituen administrazioak zenbait eskoletan eta euskararik ez zekitenak ziren. Ikastetxe batzuk langile hori ez zuten onartu eta bueltatu egin zuten. Horrek bere kostoa dauka, Hezkuntza Sailak ez zuelako ordezkari euskaldunik bidali. Horregatik, oso egoera zaila da baina administrazioari argi eta garbi azaldu behar zaio horrelako gauzak onartezinak direla.

Irtenbide zaila duen arazoa da, bai-



na Ikasbatuaz-ek planteamendu bat luzatu du: sektore guztiak mahai baten inguruan eseri eta hitz egitea irteerak bilatzeko. “Irteerak egon badaude. Ratioei begira jarriz, lanpostuak badaude, baina ezin da administrazio mota eta politikarien arabera gauzak aldatuz ibili”.

Talde desberdinek bildu behar lukete irtenbidea bilatzeko, eta Ikasbatuaz-ek harremanak baditu batzurrekin. Ritxarrek azaldu digunez, “Guraso Elkarteekin bilerak egin ditugu, eta baita sindikatu eta administrazioarekin. Dena dela, oraindik ez gara askotan bildu”. Nafarroako Sortzen taldekoekin, berriz, harreman onak izan dituzte orain arte. “Kanpaina egin ondoren, Nafarroako herri batzuk bilerak eskatuz erantzun digute”.

Harremanak sendotu ahala etorriko dira elkarlanak eta baita hauen ondorioak ere. Ikasbatuaz-ek lehen pausoak eman ditu; hankak non jartzen dituen ondo begiratu eta norabidea ere ongi finkatu. Bidezidorra garbituz eta zabalduz joango da, bukaeran euskal eskola publiko berriarekin topo egiteko.

Suedia, lan eta familia betebeharrak orekatuz

Emakumeak lan munduan duen presentzi altuak Hezkuntza Sistemaren ere eragin handia izan du. Honela, ohiko antolaketaz gain, heziketa ez formaleko zentroak jarri dira martxan ikasten edo lanean ari diren gurasoen seme-alabei 6tik 12 urte bitartera atentziora eskaintzeko eskola aurretik eta ondoren. Ohiko heziketa eta heziketa ez formaleko zentroek elkarlanean edo integraturik nola aritu daitezkeen adibide dugu Suedia.

Eskola guztiak mistoak eta doanekoak dira. Gobernuak ikasketa-plana eta Eskola Sistemarako programa ezartzen ditu. Hala ere, 1993tik indarrean dagoen eta 97/98 ikasturtean bere osotasunean indarrean jarriko den erreformaren ondorioz Estatuaren papera murriztu da eta udal eta konterrietako kontseiluek eskola jarduerak antolatzeko erantzunkizun osoa dute.

Derrigorrezko eskola pribatu eta Bigarren zikloko bigarren hezkuntzako (B2BH) eskola pribatuen portzentaia %1,5koa izanik, Hezkuntza politikaren beste ahalegin bat Hezkuntza

Sistemaren barruan aniztasun aukerak sortzea da.

Derrigorrezko Heziketa Sistema (DHS) 7 urtetik aurrera hasten bada ere, eskolaurreko heziketa haur-zainza zerbitzu hauetan biltzen da: haur-zaintza zentroak 1-6 urte bitarteko haurrentzat eta eskolaurre zentro irekiak, inongo eskolaurre lekuko ez duten haurrentzat. Maila hauetan aritzen dira irakasleak elkarlanean aritzen dira behe-mailako DHSko irakasleekin.

DHSk derrigorrezko eskola, eskola bereziak (zenbait eragozpen dituzten haurrentzat) eta buru-minusbaliatuak direnentzat derrigorrezko eskola berreratzen dute. Suediako iparraldean Sami hitz egiten duten haurrentzat ere sami eskola dago. Guztira ikasleen %98a baino gehiago udalerriek zuzendutako eskoletara joaten dira.

Ikasketa-planak asteko klase orduak zehazten ditu arloka. Behe eta erdi mailetan ikasle guztiak materia berdina jasotzen dituzte eta goi mailakoek hautazko kurtsoen artean nolabaiteko aukeraketa egin dezakete.

Derrigorrezko eskolan (DE) ez dago azterketarik. Notak 8. eta 9. mailetan ipintzen dira B2B4ko eskolako sarrean informazio eta oinarri gisa erabiltzeko. Gurasoei bere seme-alaben aurrerapen eta zailtasunen berri ematen zaie elkarriketen bidez. Amaieran Derrigorrezko Hezkuntzaren amaierako ziurtagiria ematen zaio eta honek egokitasun orokorra adierazten du.

B2BHri dagokionez, 1992tik udale-

riak DE amaitzen duten ikasle guztientzat 3 urteko ikasketak eskaintzera behartuta daude. Heziketa guztia ikasketako 16 programa nazionalen antolatua dago: 14 profesionalera zuzendurik eta 2 ikasketa unibertsitarioko prestaketetara. Programa guztietan ikasleek denbora dute gai osagarri, gaiekin lotuta dauden lan praktikoetarako, eta programa nazionalen barruan gai eta kurtso gehigarriak hartzeko norbanakako aukerak egin ditzakete. Notak ipintzeko irizpideak ikasketa-planek jasotzen dituzte. Hiru urteko programa hauek guztiak goi mailako ikasketak jarraitzeko egokitasun orokorreko eskabideak beteko dituzte.

Goi mailako ikasketak graduatu eta graduondo eta ikerketa ikasketan banaturik dago eta matrikulazio eskubideak doanekoak dira. Onartua izateko egokitasun orokorreko eskubidea bete behar du lehenik, eta ondoren unibertsitate edo eskola unibertsitate bakoitzean sartzeko eskatzen diren egokitasun espezifikoak.

B2BHko ikasketak amaitu ondoren ikasleen %30ak jarraitzen ditu ikasketak. Hauekin batera ikasle helduen portzentaia altu batek hasten ditu ikasketak, hau da, lan egin ondoren esperientzia bereganatu duten ikasleak. Ikasleek beren ikasketa ibilbidea aukeratu dezakete eta maila berdinean gai desberdinetako kurtsoak egin ditzakete. Lehen mailako programak betetzeko 2tik 5 urtera beharko ditu. Kurtso berezituaren iraupena, berriz, 5

aste eta urte eta erdi bitartekoa izango da. Kurso guztiek ahozko eta idatzizko azterketak dituzte, baina ez dago azterketa finalik. Goi mailako Heziketa legea argitaratu zenetik 1993. urtean, ikasleek askatasun handiagoa dute ikasketen ibilbidea hautatzerakoan eta ikasketen antolaketa eta eskaintako kursoen aukera tokian tokiko udalerriri dagokie. Helduentzako heziketa ere Heziketa Sistema publikoaren barruan dago.

Heziketa ez formala


Eskola astea astelehenetik ostiralera doa eta ordutegia gorantz doa adinaren arabera. Toki-agintek eskolatzea eta haur-arretaren arteko elkarrekintzaren aldeko apustua egin dute. Ikalsea ordu gehiagoz joaten da eskolara eta hauetatik 1 edo 2 heziketa ez formaleko zentroan pasatzen ditu. Eguerdian guztiei bazkari beroa ematen zaie.

Osasun eta Gizarte Gaietarako Ministeritzaren ardurapean dauden

zentro hauek eskolan bertan edo haurtatik gertu egoten dira "aisialdiko etxea" deituta eskaintzen zaie zerbitzua. Leku gehienetan 6-9 urte bitartean.

9-12 urtekoak aisialdiko elkartetara joaten dira. Eskola aurretik, ondoren eta oporretan irekitzen dira. Eskolaurreko arreta zerbitzuetan bezala, arreta eta hezkuntza jarduerak konbinatzen dira. Gosari eta mokadu moduko otordu arinak eskaintzen dituzte.

ADINA



Zentro hauetan pertsonalaren %15 gutxi gora-behera gizonetza da, eta aisialdirako hezitzaileak dira. Formakuntza unibertsitatean jasotzen dute hiru urtez eta magisteritza eta eskolaurreko haurren arretarako prestakuntzarekin koordinatzen da. Hala ere, zentro guztietako pertsonalak ez du prestakuntza hau. Nazional mailan arauak daude zentro hauentzat eta tokiko agintearen erantzukizuna da betetzea.

Lindome, adibide praktikoa

- 1992. urtean zabaldua.

- Eskolan bertan kokatzen da eta bertako ikasketa buruak zentroaren ardura administratiboa eta pedagogikoa du.

- Pertsonal guztiak aisialdiko titulua du eta astean 8-9 orduz eskolan lan egiten du jarduerak antolatzen irakasleekin elkarlanean.

- Antolaketa:

- **Ordutegia:** astelehenetik ostiralera zabalik 6.30etatik 18.00etara. Udan bi aste itxita dago baina arreta behar duten haurrak beste zentro batera joan litezke bitarte horretan.

- **Adina:** 7-9 urte.

- **Taldeak:** bi talde 20 hurrekoak. Bakoitzak bi irakasle ditu eta bere gela. Hemen jan eta jarduerak egiten dituzte. Gainontzeko denbora nahi duten lekuan ibil daitezke.

- **Plaza kopurua:** 40. Urte osoan zehar guztiak arratsaldean etortzen dira eta erdiak goizez, eskolara joan aurretik. Oporretan gutxi gora-behera %60 egunero joaten da.

- **Langileak:** 4 emakume egun osoz eta laguntzaile bat jornada erdira behar bereziak dituzten haurrentzat.

- **Dirulaguntzak:** tokian agintek babestua. Gurasoek euren

soldataren %3-4 ordaintzen dute. Otordu guztiak barru eta eskolako bazkaria doan da guztientzat.

- Zentrotik kanpora irteteen haurrak eskolako jolas-tokian daude.

- Gurasoek ekartzen dituzte goizean edo bakarrik etortzen dira autobusez edo oinez. Eskolan 8.30ean hasten dira. 11.00etatik 13.30etra haurrak zentrorantz itzultzen dira. 14.30etan bazkaltzen dute eta 16.00etatik 17.00etara etxera itzultzen dira.

- Jarduera batzuk programatzen dira baino orokorrean bere gisa ibil daitezke.

- Pertsonalaren helburua hurrekin harreman goxoa sortzea da. Horretarako unean zehar ekintza desberdinak egiten dira.

- Guraso eta pertsonalaren arteko harremana adiskidetsua da. Urtean zehar ekitaldi desberdinak antolatzen dira harremanak sendotzeko. Azken urteetan horrez gain, geroz eta aita gehiagok parte hartzen dutela ikusi da.

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak jasoz.

Izena..... 1. Deitura.....

2. Deitura..... Helbidea.....

Tfnoa..... Herria.....

Posta Kodea..... Herrialdea.....

Ikastetxea..... Herria.....

Banku edo aurrezki kutxa.....

Sukurtsal helbidea..... Sukurtsal Zkia.....

Kontu korrontea

edo libreta

Entiratea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ Barne)

Hego Euskal Herria
4.000 pezeta

Ipar Euskal Herria
160 libera

hik hasi

Euskal
heziketakako
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia.
20.160

LASARTE-ORIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37.15.45.

Fax: 943/ 36.10.48




XAGUZAR SAILEKO liburu berriak



12 urtetik gorakoentzat

euskal
heziketarako
aldizkaria

ADI!



hik hasik

“baliabide pedagogikoen gida
liburua” kaleratuko du irailan